



ARGIA

MIGUEL JAVIER URMENETA (IRUÑEA, 1915-1988)

DIBISIO URDINEKO SOLDADUAK EUSKAL HERRIA AMETS

**AMAIA NAUSIA:
FEMINITATE IDEALAK
XVI. MENDETIK GAUR ARTE**

**LOHITZUNE ZULOAGA:
DELINKUENTZIAREN
PERTZEPZIO OKERRAZ**

**BEÑAT GAZTELUMENDI:
BERTSOLARITZAZ,
AHOTS URRATUZ**




EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12 € BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 7 € BAINO GUTXIAGO

ARGIA HILERO, HILEAN 4 € BAINO GUTXIAGO



943 371545

HARPIDE@ARGIA.EUS

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

Urte osoko harpidetza	
☒ ARGIA	Hilean geroz nahi du!
☐ ARGIA ASTERO	Hilean 12€ baino ez
☐ ARGIA HAMABOSTERO	Hilean 7€ baino gutxiago
☐ ARGIA HILERO	Hilean 4€ baino gutxiago



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailua
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Estitxu Garai Artetxe
- 20 Irati Elorrieta
- 21 Oier Araolaza
Joanes Etxebarria
- 22 Xabier Mendiguren Elizegi



Beñat Gaztelumendi Arandia: "Ez zait gustatzen bertsolaritza beste kultur jarduerentzat eredu garritzat saltzea". (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 38 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
LOHITZUNE ZULOAGA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: RAMÓN MASATS

SAKONEAN

- 14 | Amaia Nausia, feminitatearen idealez / Reyes Ilintxeta
- 24 | Miguel Javier Urmeneta, frankismoaren amaraunean harrapatutako jeltzalea / Xabier Letona
- 30 | Alizia Izal: Nafarroako transexualitate legeaz / Koldo Azkune
- 32 | Zergatik ordaintzen dut hainbeste argindarraren truke? / Aitor Kaltzakorta
- 34 | Jone Miren Hernández, euskalgintzaz eta feminismoaz / Onintza Irureta Azkune
- 36 | Migratzaileen eskubideak eta okupazioa uztarturik Italiako Parma hirian / Xuban Zubiria Elexpe
- 42 | Beñat Gaztelumendi: Gipuzkoako txapelduna bertsolaritzaren inertziez / Kepa Matxain Iztueta
- 46 | Zabaltzen ari den euskarazko prosa ajez betetako hori / Lander Arretxea

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Arrate, Axier Lopez, Eñaut Agirrebengoa, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iratitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Llorente, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.
HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.
POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.
HARPIDETZA:
Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.





PANORAMA

Dispertsioaren harritzarra mugarazi

Baiona eta Bilbon dozenaka milaka lagun bildu ziren, sakabanaturik dauden 400 bat euskal preso politikoen eskubideen alde. Orain dela 26 urte bezala, sakabanaketa politika indarrean sartu zenean, gaur ere Espainiako eta Frantziako estatuetako 72 kartzelatan sakabanaturik dago preso gehiengoa. Etetik 400 kilometrotara baino urrunago daude preso %90a, Etxeratek emandako datuen arabera.

Argazkia: Dani Blanco

“Ardurarik ez duten mugimendu sozialek Katalunia baldintzatzeak kezkatzen nau”

Iñigo Urkullu (DVn)

argia.eus-en ikusgai



Presoen dispartzioaren aurka

Argazki galeria osatu dugu, euskal presoen eskubideen defentsan Bilbon eta Baionan egindako mobilizazioekin.



Jostailuak eta rol eraikuntza

Jendarteaz dugun pertzepzioa eraikitzen laguntzen dute jostailuak. Baina zein da jolas eta jostailu jakin batzuek eraikitzen duten iruditeria?



ADIBIDE KOMUNIKAZIOA

Egin gehiago, ez gutxietsi Bilbo

Xabier Letona

@xletona

Larunbatean dozenaka milaka pertsona bildu ziren eta hori ez da txantxetako. Inork ez du halako mobilizazio gaitasunik Euskal Herrian. Preso politikoen alde 71.000 lagun bildu zirela jakinarazi zuen Naiz-ek, 63.000 Bilbon eta 8.000 Baionan (argazkian, Baiona).

Mirentxineko furgonetak aurrena, ehunka senidek zabaldu zuten pankartaren bidea: *Giza eskubideen, konponbidearen eta bakearen alde, euskal presoak Euskal Herrira*. Azken urte hauek bereziki gogorak izaten ari dira senideentzat, duela lau urte esan zieten apurka joango zirela hurbiltzen eta ateratzen presoak, baina jai: Zapaterok bazuen halakorik buruan, baina PPK mendekuaren bideari heldu zion, eta euskal gizartearen ez da preso nahikorik izan espetxe politikan aldaketarik eragiteko. Zituen baldintza onenetan, inoiz ez da aritu Estatua hain gogor presoekin, eta zabalik zituen bide aurreratuenak ere itxi ditu.

Xabier Euzkitzek eta Zuriñe Hidakok irakurri zuten Sareren agiria: dispartzio politika salatu zuten bereziki, ETAK jardueraren armatua utzi eta lau urtera horrela jarraitzea sinesgaitza dela azpimarratuz eta egungo espetxe politikaren amaiera eskatuz. “Azkena izan dadila” desiratu zuten. Baina bideratu bitartean, gorpilak jiraka jarraitu beharko du.

Larunbatekoa ez da nahikoa izango, baina asko da, eta hortaz jabetzea ere garrantzitsua. Nekez gutxietsi daiteke halako indar erakustaldirik, nahiz eta argi dagoen aldarrikapena nola bideratu pentsatzea ezinbestekoa dela. Euskal presoekiko politikaren eraginez, Euskal Herrian egun bizi den giza eskubideen urraketa handiena bideratzea euskal gizartearen funtsezko zeregina da. Bada ordua euskal instituzioetatik ere presoen egoera eta ETaren jardueraren bereizi eta Madrilan aurrean bestelako preso neurriak aktibatzeke. Horrela bakarrik izan dezake erabateko sinesgarritasuna giza eskubideen lehentasunaren diskurtsoak.

“Salbuespen legedia desegiten saiatuko gara, egoera asko aldatuko litzateke”

TERESA TODA, SAREKO ELEDUNA

Presoen eskubideen errespetua “Euskal Herrian jende gehien mobilizatzen duen aldarria” dela dio Todak. Hemendik aurrerako bideaz ere mintzatu da: “Euskal Herria zeharkatuko duen tren abiaturiko dugu, herriz herri eta auzoz auzo atxikimenduak biltzen jarraitzeko”. Erronka nagusia preso gaixoen askatasuna lortzea izango dela dio, baita dispartzioarekin amaitzen saiatzea ere, eta horretarako, albuespen legedia desegiten jarriko dituztela indarrak. **INFO 7 (2016/01/11)**



Ruben Garate
Argi Iturralde
Iñaki Balerdi
Antxoni Fernandez
M.C. S.
Leo Esteban
Jose Mari Maruri
Pilar Arsuaga
Alfonso Isasi
Iñaki Saez
Asier Heriz
Sara Fernández
Karmele Solaguren
Natividad Junko
Rosa Amezaga
Arantza Amezaga




Aitortu gabeko 16 biktima

sakabanaketak
errepideetan
eragindako
hildakoak

SAKABANAKETAREN MAPA

Datuak, grafikoa eta argazkiak:

ETXERAT elkartearen "Dispersioaren Dossier" (2015)
eta "Memoriarako Urratsak" txostena



Artur erregea larrugorrian

Marc Garcia*

@sants_marc

Masek Merkelen ikasle aurreratu izendatu zuen bere burua, Zapatero edo Rajoy etxerako lanak "gogoz kontra" egiten hasi baino askoz ere lehenago. Eskubide sozialen murrizketak izugarriak izan dira Katalunian. Gizartearen egoera larriari –baina legezkoari– ustelkeria kasuak gehitu behar zaizkio Kataluniako familia handietan eta alderdi eta erakunde publiko nagusietan.

Erregimenarekin lotutako alderdien jaitsiera esponenziala izan da M15 efektuaren ostean eta beraz, boterea lortzeko estrategia berriak behar dituzte. Krisiak ireki zizkion begiak Kataluniako gizartearen zati handi bati, orain urte gutxira arte Espainiaren barruan jarraitzea hobesten zutenei. Hor kokatzen dugu sektore horien deriba independentista delakoaren hasiera. Estatuko beren homologoen klase interesek mugatzen dituzte beren klase interesak, eta beraz mehatxu independentistak soilik eskaintzen die negoziaketarako abagunerik.

Gaur gaurkoz Espainiako Estatuan ez dago lege-esparrurik proiektu independentista garatzea ahalbidetzen duenik. Hortaz, independentziak aurrera egingo badu, Espainiako legedia hautsi beharko du. Eta Mas ez dago prest hori egiteko.

Mas ez inbestitzea bere egin zuen CUPek, gizartearen zati handi baten aldarria zelako eta azken hamarkadan Masek eragin dituen izerdi eta malakoak oso kontuan dituztelako. Erabaki garrantzitsu oro, presidentetza edota aurrekontuak, CUPek bere osotasunez onartu behar dituzenez, hala egin dugu.



Hedabideen aldetik CUPek jaso dituen kritika eta irain guztien gainetik, ezin diogu asanbladari uko egin; gure praktika politikoaren oinarrietako bat delako, baita gure pentsatzeko modua ere. Eraso egiten digute guk esandakoak beren aurka egiten duelako, eraso egiten digute esaten dugun moduak beren aurka egiten duelako.

CUP-CC desegiteko asmoa zuen mezuak lortu duena, azken batean, izan da CUPen bi arimak batzea. "Inbestidurari bai" eskatu dutenek ere uko egiten diote arma izateari, "inbestidurari ez" bozkatu duten kideen aurka. Izan ere, oso argi daukagu bereizten gaituena mugimenduari buruzko ikusmolde taktikoa dela, eta ez estrategikoa.

CDCren analistek ikusi dute beren proiektuak ez duela martxoan babes handiagoa lortuko eta ez dagoela aukerarik ERCri berriz xantaia egiteko, hauek hauteskundeetan irabazle ikusten baitute beren burua. Proposamen alternatiboak Carles Puigdemonten izena idatzita dauka. Ordezko gaztea, CIU zaharraren *trapitxeo* eta ustelkeria kasuetatik bereizitakoa, subiranotasunaren aldeko soslaiduna –Independentziaren aldeko Udalerrien Asanbladako egungo presidentea da–, baina zapatan harri-txintxorren bat izango duena. Agian Metromunster ekoiztetxearen etorkizuneko beste dokumental batek jasoko du Juan Pablo Torroija gaztearen heriotza. Gironako udaltzaingoak hil zuen Puigdemont alkate zela. Denborak esango du Kataluniako Errepublikaren etorkizuneko president berriaren aurrean ote gauden.

* Endavant antolakundeko kidea.

EKONOMIAREN TALAIAN

Pentsionistak miseriatik atera



Juan Mari Arregi

Ipar Euskal Herriko herritarrek Hego Euskal Herrikoen lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) ia bikoitza dute: 1.457,52 euroko hamabi paga, 756,70 euroko hamabi pagaren aldean –2016tik aurrera hamalau paga izango dira, beraz 655,20 euroko gutxieneko soldata–. Iparraldeko pentsionisten batez besteko pentsioa ere Hegoaldekoena baino altuagoa da neurri berean. Europar Batasunean LGS Luxenburgoko 1.922,96 euroen eta Bulgariako 194,29 euroen artekoa da. Eta denok gara desberdintasuna ongi lekututa dagoen Europar Batasun honen parte.

Espainiako Estatuan pentsioak duintasunetik oso urrun daude milioika pertsonentzat, bereziki alarguentzat, miseriaren mugan baitaude. Euskal Herriko hamar pentsionistatik zazpik (665.000 lagunek) hilean 1.000 euro baino gutxiago jasotzen dute. Horietatik erdiak 650 euroko batez besteko pentsioa dute, eta milaka alargunek 400 euroko ordainsaria baino ez dute. Halako miseriarik! Espainiako Gobernuak urtero %0,25 igotzen ditu pentsioak, hau da, 1 eta 3 euro artean. LGS berriz, aurten %1 igo dute, 655,20 euroko zifra lotsa-garriraino.

Euskal Herriko pentsionisten plataformek legeagintzako herri-ekimena prestatzen ari dira pentsio duinen defentsan, Eusko Legebiltzarreko Parlamentuko mahaiak atzera bota ondoren EAJ, PSE eta PPren botekin. Plataformek sinadura bilketara masiboa hasiko dute, Europako Gutun Soziala kontuan hartuta Euskal Herrian duintasunez bizitzeko pentsio baxuenak osatzea eskatuz, hilean 1.080 eurora iritsi ahal izateko. Euskal herritarrek elkartasunez kolaboratzeko aukera polita dute: euren sinadurarekin, milaka pentsionista miseriatik ateratzeko egitasmoan parte hartu dezakete.



DISGUSTIPADO-CC BY SA

Aukera garesti eta suntsitzaileena, Bizkaiko Hego Trenbide Saihesbiderako

EZKERRALDEA. Espainiako Gobernuak publiko egin du Hego Trenbide Saihesbide delakoaren egitasmoa. Helburua Santurtziko Superportura iristen diren merkantziak trenez ateratzea da. Balizko ibilbide bi aurkeztu baditu ere, Madrilek baten alde egin du esplizituki, bietatik garestiena eta ingurumenari inpaktu handiena eragingo liokeena dela aitortu duen arren. Arrazoa da lehenetsitako alternatibak lotura egingo lukeela etorkizunean eraikitzekoa litzatekeen Santander-Bilbo abiadura handiko trenbidearekin. Egitasmoak 310 milioi euroko kostua luke eta, besteak beste, 2010ean amaituta zenetik itxita egon den Serantesko tunelari (argazkian) erabilpena emateko balioko luke.

Hiru euskal enpresa gora Ibex-35ean, baina nola?

Asier Arrate Iruskietza

@AsierArrate

Gamesa, Azkoyen eta Faes Farma euskal enpresak dira 2015ean Espainiako Estatuko burtsan euren balioa gehien handitu dutenak. Egoera ekonomiko positiboa, oster, ez da langileen egoerarekin bat joan.

Gamesa

Espainiako Auzitegi Gorenak baliogabetu berri du Gamesak 2010ean egindako EEEda, zeinaren ondorioz Altsasuko lantegia itxi eta 150 langile kaleratu zituen. Beste lau fabrikako behin-behineko langileen kontratuak etetea ere erabaki zuen.

Azkoyen

Vending makinak ekoizten dituen enpresa nafarrak %132,5 igo du bere balioa 2015ean. Iaz, lau lanuzte egin zituzten langileek euren hitzarmen kolektiboa defendatu eta lan baldintzak hobetzea eskatzeko.

Faes Farma

Bizkaiko enpresaren irabaziak %3 igo ziren iaz. Arrazoietakoa bat: Bilastina antiestaminikoaren salmenten igoera. Botika horren txosten negatiboa kaleratu zuen Osakidetza 2012an, bere eragin-kortasun eza eta prezio garestia nabarmenduz.

HONDAKINAK



%85

2014an Bilboko Zabalgarbi errauskailuak kiskali zituen hondakinen %85 birziklagarria zen eta %1,6 toxikoa eta arriskutsua, enpresak berak emandako datuen arabera.

%31,3

organikoa zen, %7,5 egurra, %16,7 paper-kartoia, %14,7 plastikoak, %4,7 beira, %7,1 oihalak eta %3 metalak.



12.000 MILIOIKO MURRIZKETAK

Espainiako Gobernu berriak murrizketa handiagoak sartu beharko dituela agindu du Europako Batzordeak. Hainbat hedabide 9.000 milioi euroko murrizketaz mintzo diren arren, José Moisés Martín Carretero ekonomialariak 12.000 milioiko guraizekada aurreikusi du.



POLEMIKA LEKAROZKO AROZTEGIAREKIN

Lekarozen Aroztegia egiteko plan urbanistikoa onartu zuen UPNren Gobernuak, eta Nafarroako Gobernu berriak planarekin aitzin egitea kritikatu dute bai plataforma herritarrek bai Baztango Batzar Nagusiek, herritarrek kontuan hartu ez dituztelakoan.



EKONOMIA SOZIALAZ KOMIKIA

Oletakorta, ekonomia solidarioko abentura bat komikia plazaratu dute Alboan Fundazioak eta REAS Euskadi sareak, ekonomia soziala zer den azaltzea helburu duena.

Zutik jausi da katua... eta bizirik atera da



Xabier Letona

@xletona

KATALUNIA WARS VII-REN errodajea amaitu zen larunbat arratsaldean Barzelonan eta biharamunean estreinatu zen Kataluniako Legebiltzarrean, ezus-teko aktore berria eta guzti: Carles Puigdemont, Generalitateko lehendakari berria. Epika, glamourra, poza, ikusmina... dena nahastu zen hainbeste esperotako filmaren lehen fotogrametan. Garrantzitsuena, ordea, filmak aurrera begira iragarritako jarraipena izan zen: Erresistentziak batasuna berregin du Lehen Ordenaren asmo inperialen aurrean eta lider berriak askatasunaren aldeko borrokan "arima uzteko" prestutasuna agertu du.

**Estatu egiturak sortzen
hasteak Madrilekiko
konfrontazioa ekarriko
dio, hots, bigarren
lanabesa, gaur gaurkoz
independentziaren
garra elikatzeko erregai
garrantzitsuena**

Kontaketa egiteko modu bat da, esan zitekeen baita ere Kataluniako zirkoko akrobatek mundua -gure mundutxo- asalatu dutela euren akrobazia ikaragarriekin. Katuaren zazpi bizitzak nola, Kataluniako prozesua hala: 2009an lehen manifestazio erraldoia egin zenetik behin eta berriro iragarri da haren amaiera eta honek eutsi, bai Artur Masek, bai erreferendumak, bai mobiliza-

zio ahalmenak, hauteskundeak... independentziaren atarian jartzearaino.

ATARIAN? Inork ez daki, horretarako filmaren VIII. edo IX. kapitulua ikusi beharko dugu. Baina katalan independentistak atari horretan kokatu dira, eta hori da autonomiaren marra gainditzeko lehen baldintza. Begirakunearen arabera fikzioa eta errealtatea nahasten diren prozesu honetan orain arteko unerik korapilatsuenean jarriko dira independentistak.

Hamazortzi hilabeteko jarduna izango du gobernuak eta marra gorri ugari gaindituko ditu. 2014ko "kartoizko erreferendum" harekin gurutzatu zuen lehen marra Generalitateak eta hark Mariano Rajoyren *laissez faire* politika-rena amaiera ekarri zuen. Estatua bestelako jarreretakoko prestatu da jada. Igandean Miquel Iceta PSCko buruak argi ihardetsi zion Puigdemonti Parlamentean: Espainiak legearekin erantzuten duenean, ez da "ez elkartasunik, ez errukirik" izango.

Errepika dezagun galdera, baina: independentziaren atarian? Bai eta ez, eta klabe nagusia izango da gizartean sostengu berriak irabazteko gai diren ala ez. Horretan datza Gobernuaren ahaleginik handiena datorren hilabeteetan: independentzia prozesuarekin jarraitu, azken hauteskundeetan lortutako %48a gainditzeko. Gaur egungo Legebiltzarrek legitimitate osoa du prozesu hori bideratzeko, baina ez du nahikoa izango %50a gainditzeko ez badu.

Hori da azken hiru hilabeteetan CUP eta Junts Pel Síren arteko gako nagusietakoa: nola lortzen da hori, En Comú biltzen duen esparru antikapitalista ho-

rretan arrantzan edo Katalunian nagusi den zentro-ezkerra horretan gehiago arakatuta? Lortutako akordioaren muiak sintesia azpimarratzen du: ahal den toki guztietatik. Bistan da prozesu independentistak 18 hilabete baino gehiago iraungo duela, Espainiarekin erreferenduma egiteko akordiorik ez bada bederen, baina une honetan, denak adierazten du Madrilen ez dela oraindik agertu halakorik bideratzeko seme-alabarik.

HIRU LANABES SENDO ditu fronte independentistak: lehena gutxieneko estatu egitura berriak prestatzea da; horrek Madrilekiko konfrontazioa ekarriko dio, hots, bigarren lanabesa, gaur gaurkoz independentziaren garra elikatzeko erregai garrantzitsuena, tentsioa izugarri goratuko baita; hirugarrena gobernagarritasuna da, austerizidioak ekarritako miseria bideraezina da hilabete edo urte gutxitan, baina jar daitezke horretarako bideak, eta herritarrak aldaketa zantzuak ikusten baditu, beste arma garrantzitsua izan daiteke. Noraino iristeko, ordea? Indarrak metatu eta legezko erreferendumerara. Etsigarria izan daiteke independentistarentzat, baina gaurkoz, eta indar harremanak kontuan hartuz, errealea dirudi. Posible da, halaber, independentzia aldarrikatzea eta Europar Batasuneko hainbat estatuk berau onartzea, baina une honetan hori sinesgaitzagoa da.

Fikzioaren ondoren, txistearen unea izan daiteke egunotakoa. Badoa Puigdemont Zarzuelara eta esaten dio Erregeari: "Agur eta ohore Felipe, Kataluniako independentzia lortzeko gobernuaren lehendakari izenda nazazun etorri naiz...". (Jarraituko du) ■

iruñean hain kalapita handia Baltasarren melanina2...



Hau,
BALKERIA !!
"

aldiz, inork ez du haren euskalduntasunaz galdetu...

Ura, megapoliak eta krisia: CO2ak ez baitu dena esplikatzen



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

COP21 klimaren aldaketari buruzko biltzarra hasi bezperan, abenduaren 1ean, UNESCOk "Ura, megapoliak eta aldaketa globala" biltzarra burutu zuen Parisen. Uraren krisia salatzen eta justiziaren aldeko beste borroketan lider ezaguna den Maude Barlow kanadiarra ahalegindu zen gaia present egon zedin Parisko eztabaidetan.

COP21 hastear zelarik Parisen, Maude Barlow kanadarrak mahai gainera atera zituenen gai zerrendetan falta ziren zenbait arazo: mundu osoan hiritzar-rrak –megapoliak– handitzen ari dira eta haietako biztanleei ez zaie bermatzen uraren eskubidea, krisi ekologiko handia eragiten da ibaiak agortzeraino idortuz, lurpeko ur geruzak ahitzen ari dira ziztu bizian, oihan handiak eraitsiz uraren zikloak suntsitzen ari gara...

Horretaz mintzatu ziren UNESCOk Parisen abenduaren 1etik 4ra burututako "Ura, Megapoliak eta Aldaketa Globala" biltzarrean eta haren berri eman du Daniel Hofnung ingeniari erretretadunak ATTACen webeko bere blogean; haren bidez eskuratu dugu Barlow anderearen hitzaldia. Hofnung uraren kudeaketa burutsuaren aldeko eta bere herri Ivry-sur-Seineko (Parisen auzoa da praktikan) errauskailuaren kontrako militante sutsu bezain kualifikatua da, ATTACeko zuzendaritzako kide izateaz gain.

Gaiaren garrantzia honela laburbiltzen du Hofnungek: "Kyoton hasitako prozesua zentratu da negutegi eraginekoko gasak kliman daukan eraginean, proposatuz murriztea gas isurketak atmosferan eta, ondorioz, erregai fosilen kontsumoa. Baina beste prozesua ahaztu du, uraren zikloaren hondatzea, klimari egiten dion kaltearekin eta bere onera itzultzeak egingo lukeen mesedearekin. Planeta erregeneratzeko modua eskaintzen baitugu".

Ikuspegi honetan mundu mailan autoritate ezaguna da Maude Barlow (Kanada, 1947). Ekologiaren, bakearen eta giza eskubideen aldeko borrokalaria, liburu sorta baten egilea, herritarren eskubideak defendituz multinazionalen erasoei aurre egiten dien Council of Canadians (Kanadarren Kontseilua) mugimendua- ren liderra da. Globalizazioaren kontrako foroetan bezala Kanadako indigenekin meatzaritzako korporazioei karriketan aurre egiten sarri ikus daiteke Barlow.

Parisen abenduaren 1ean eman zuen hitzaldiari –ondoren laburbiltzen dugunari– izenburuan *A blue and just future is possible* ipini zion, etorkizun urdin eta justua posible dela. Esaldi baikorra, ondoren marraztu behar zuen panorama beltzaren aurretik. Emakume honek beti itxaropena aldarrikatzen baitu, beste batean aldizkari kristau bati deklaratu zionagatik: "Injustiziaren kontra borrokatzen duen jendeak etsi egiten du, etsitzen dute ez dakitelako zer gehiago egin. Nire lanaren zati bat hor egotea da, itxaropena emanez eta 'ez eman amore' esanez".

Erronka itzel baten aurrean dago gizadia, dio Barlowk. Garabidean diren herrialdeetako hiritzarrek txabolategiz inguratuta daude, goseak eta klimaren krisiak haietara eramanik milioika behartsu. 2030erako *bidonville* horietan biziko dira hiri handietako jendeen erdiak. Gaur askok ez daukate ur garbirik eskueran, betiko iturriak kutsatu edo agortuta, pribatizatutako ur garestia pagatu ezinik.



Uraren etika berri bat

Pekin, Delhi, Mumbai, Kalkuta, Manila, Mexiko, Caracas, Lagos, Abidjan, Teheran, Johannesburg... denetan dute urik eza arazo. Baina berez nahikoa ur beharko lukeen Sao Paulo (Brasil) bat idorteagatik larrialdian harrapatuta egoteak erakusten du krisi ekologikoak nola eragiten dion krisia gizadiari.

Lurrean gero eta urriagoa da ur garbia. Agortzeraino ustiatzen ditugu ibaiak, handien arteko asko iritsi ere ez dira iristen itsasoraino. 1990etik hona Txinako ibai nagusien erdiak desagertu egin dira. Lurpeko akuiferoak ere agortzen ari gara. Ekialde Hurbilean 60 milioi pertsona ase behar dituen Akuifero Sistema Arabiarra, Indus ibarrekoa Indian eta Kaliforniakoa AEBn lehertzeko arriskuan dira.

Ororen buru, hiru korapilo askatzen zail dauzka gizadiak. Lehena, klimaren aldaketa osorik ulertu beharra daukagula. Erregai fosilen konbustioak isuritako CO2a arazoaren erdia baino ez da.

Suntsitu ditugun urik gehienak ez ditu desagerrarazi klimaren aldaketak: gehiegizko ustiatzearekin eta erabilera okerrarekin hondatu ditugu, ibarretako arroak suntsituz, lurzoruen ahalmena murriztuz, basoak eraitsiz... Herritarrei ez zaie azaltzen Amazonas ibarrean oihan tropikala eraisteak, ziklo hidrokologikoa hondatuz, dakarren euria urritzea ehunka edo milaka kilometro urrunago, agian AEB urrunetan.



Council of Canadians erakundeak zabaldukako argazki handian, Maude Barlow hizketan Angela Merkel Alemaniako kantzilerraren aurrean 2014ko apirilean Berlinen, G7ak TTIP dela eta burutu zuen biltzar batean: gogorarazi zion agintariei ezin dutela onartu beren herritarren eskubideak transnazional pribatuen menpe uztea. Argazki txikian, Barlow Kanadako Almonte herrian Enerdu konpainiak eraiki nahi duen zentralaren kontrako mobilizazioan.

Ondorioz, klimaren kaosa konpon-
tzeko erregai fosilak murrizteaz gain
uraren zikloak beren onera ekartzea de-
rri gorrezkoa izanen da.

Askatu beharreko bigarren korapi-
loa dagokio herritarrek ura eta sanea-
mendua edukitzeko duten eskubideari.
Duela bost urte giza eskubidetzat aitortu
zuen Nazio Batuen Erakundeak, mundu osoko
agintariei bermatu behar dizkiete herritar guztiei,
populazio ahulenei bereziki.

Deretxoa praktikara eramateak esan
nahi du agintariei eragotzi behar diete-
la meatzaritzan ari diren multinaziona-
lei iturriak agortu edo kutsatzea, interes
ekonomikoen aurretik jarritz jendeenak.
Bestalde, uraren eskubidea justizia afe-
ra denez eta ez karitatezkoa, herritarrek
ur garbia eskuratu ahal izateko derri-
gorrezkoa da pribatizazioarako joera az-

pikoz gain jartzea, Paris eta beste hiri
handi batzuk egin duten moduan udalek
berriro beren esku hartuz noizbait kon-
painia pribatuen esku lagatako zerbi-
tzua.

Hirugarren gakoa garapen eredu-
ari loturik dago: agintariei sustatutako
garapen eredu hau da arazoa sortu due-
na eta konponbidearentzako oztoporik
handiena ere bai. Mundu mailako mer-
kataritzari arauak oro kendurik, abe-
ratsak gero eta aberatsago dira, mun-
dutarren %1 ondasun guztien %50en
jabe egin da eta, aldiz, milioika nekazari
txikik hiri handietako txabolategietara
joan behar dute, beren lurak eta bizibi-
dea galdurik.

Agintari eta gobernuak atzerriko ka-
pitalak erakartzearen pribatizazio
politika bortitzak ezartzen dituzte eta
onartzen dituzte TTIP bezalako nazioar-

teko itunak, zeinen bidez ingurumena
eta jendeen eskubideak defenditzeko
dauzkaten legeak jartzen dituzten mul-
tinazionalen erabakien menpeko. Ura-
ren etika berri bat gerta daiteke abia-
puntu %1aren tiraniari aurre egin eta
garapen eredu justuago bat eraikitzen
hasteko. Politika guztien oinarrian jarri
ura zaintzea. Ekin uraren zikloei egin-
dako kalteak sendatzeari. Horren ara-
bera antolatu nekazaritza lekukoa eta
iraunkorra. Debekatu petrolioia eta gasa
erauzteko frackinga.

Hiri eskubide *-droit à la ville-* berri
bat aldarrikatuz amaitu zuen hitzal-
dia Maude Barlowek: "Imajinatu hiri
bat non bertan dauden guztiek nahiko
duten egotea eta ez zaizkien ebatsi ez
beren soroak ez beren bizibideak. (...) Posible da. Etorkizun urdin eta justua
posible da". ■



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Amaia Nausia, historialaria

«XVI. mendean, Nafarroan, emakumeok eskubidetan zertxobait aurrerago geunden beste herriekiko»

Aro Modernoaren hasieratik hona zein izan diren feminitatearen idealak eta ordenamendu horretatik kanpo bizi izan diren emakumeek pairatu dituzten doktrinatze eta zigorrak aztertzen ditu Amaia Nausiak.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Historialaria bokazioz?

Gaztetatik argi nuen Historia ikasi nahi nuela, agian txikitatik ikastolan oso irakasle onak izan ditudalako, haien artean Joseba Asiron, oraingo Iruñeko alkatea. Ondoren, zortzi urte eman nituen Opuseko unibertsitatean, lizentziatura egiten lehenbizi eta tesia jarraian, eta berehala Historia Modernoarekin maitemindu nintzen. Departamentuko beka batekin aritu ondoren, Erasmus programarekin Sienara joan nintzen eta Pisako Unibertsitatean aritu nintzen urtebetez.

Zein izan daiteke Eusko Ikaskuntzaren eginbeharra kasik 100 urte pasa eta gero?

Eusko Ikaskuntza Euskal Herri mailako unibertsitatearik ez zegoenean sortu zen, hutsune hori betetzeko asmoz. Orain bere egitekoa zein den birpentsatu behar du. Beti izan da pentsalari, ikertzaile eta erakunde topalekua eta horretarako gaitasuna du. Hala ere, gaur egun gaitasun hori izaten jarraitzen duela erakutsi behar du. Hasiera-hasieratik Hegoaldeko erakunde nagusiak izan dira ekimen honen bultzatzaileak eta Euskal Herriko lurralde guztiak ari

dira elkarrekin. Izaera hori berez badu erakundeak, eta probestu behar dugu.

Hemen, Nafarroan, Gobernu berriarekin hobeki?

Harremana berreskuratu dugu behintzat. Barcinarekin eten bat izan zen. Orain lortu dugu Gobernuarekin harreman zuzena berreskuratzea. Gutxienez, ateak berriz zabalik daudela ikusten dugu.

Historialari gisa beti emakumeen inguruan aritu izan zara?

Historia interesatu zait beti, neure burua eta neure ingurua ulertzeko. Emakumea naizenez emakumea dut intereseke. Hasieran alargunen gaia hasi nintzen jorratzen, tesi zuzendariak hala proposatu zidalako. Ez nintzela feminista pentsatzen nuen, eta genero ikuspuntua erredukzionista iruditzen zitzaidan. Urteak pasa ahala, aldiz, konturatu naiz feminista naizela eta genero ikuspuntua oso garrantzitsua dela, horren arabera sailkatu gaituztelako beti Historian. Generoa eraikuntza dela ere ikusi dut argi eta garbi.

Zergatik XVI. mendea?

XVI. mendean aldaketa asko gertatu ziren eta gaur egungo gure gizartearen oinarri asko garai hartan finkatu ziren. Estatu moderno eraikitzen hasi zen. Aro konfesionala deitzen zaio Estatua eta Eliza eskutik doazelako, eta orduan diziplinamendu garaia hasi zen.

Erdi Arotik Aro Modernora pasatzen da. Erdi Aroan boterea sakabanatuta zegoen jauntxoaren eskuetan eta XVI. mendean, nazio estatuak sortzen direnean, erregeak konturatzen dira haiek bereganatu behar dutela botere osoa. Hori hala izanda, aginte politikoa, ekonomikoa, militarra, erlijiosoa... biltzen hasten dira estatu sendo eta zentralizatua lortzeko asmoz.

Familia oso garrantzitsua zen, familia bakoitza estatu txiki bat bezalakoa delako. Familiek ongi funtzionatzen badute estatuak ongi funtzionatuko du. Horretarako norberak oso garbi eduki behar du zein den bere egitekoa, eta emakumea beti agertu da gizonaren esanetara. Estatu hasten da markatzen zein izan behar duen emakumearen portaera alor publikoan eta pribatuan.

A close-up portrait of Amaia Nausia Pimoulier, a woman with dark, wavy hair and bangs, smiling warmly at the camera. She is wearing a dark-colored blouse with a vibrant floral pattern in red, white, and blue. The background is a soft, out-of-focus grey.

Amaia Nausia Pimoulier

1982, Iruñea

Historian lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean. *Entre el luto y la supervivencia: viudas y viudedad en la Navarra Moderna (siglos XVI y XVII)* tesiaren egilea. 2012an *¿Vírgenes o putas? 500 años de adoctrinamiento femenino (1512-2012)* liburua plazaratu zuen Erein argitaletxearekin. Eusko Ikaskuntzako Nafarroako ordezkariitzako burua, Euskalerria Irratiko zutabegilea, Euskadi Irratiko Faktoria saioko tertuliakidea eta *Gaur* 8 aldizkariako artikulu egilea da.

Garai hartan ematen den emakumearen doktrinatze eta diziplinamendua oso bortitzak dira. Askok lehenagotik datorren diskurtsoa bere egiten du gizarteak. Oso interesgarria da ikustea zer mekanismo jartzen dituzten martxan emakumea kontrolatzeko. Diskurtso horren arabera, emakumea arriskutsua da intelektualki ahulagoa delako, eta hori frogatzeko “medikuntza”-argudioak ematen dituzte. Juan Luis Vives moralista espainiarrak, adibidez, zioen emakume bat haurdun gelditzean, haur hartzean, bere sabela bero bazegoen gizona sortuko zela, eta hotza egonez gero, emakumea. Hala borobiltzen zuen teoria: “Bero goririk ezean, sortzez ergelagoa da emakumea, izutiagoa, ahulagoa, eta zeregin txikiez arduratu behar du”.

Pertsona bati buruz ari garenean irakinaldi bat falta zaiola esaten dugunean, ideia hemendik dator, hain zuzen ere. Diskurtso paternalista sortzen da horrela. Jaungoikoak gizonari eman dio pentsatzeko gaitasuna eta horri esker bere pasioak kontrolatzeko gai da, baina emakumeak ergelagoak garenez, ezin ditugu gure pasioak kontrolatu eta horregatik beti egon behar dugu gizon baten menpe, aita lehenbizi eta senarra ondoren. Horregatik ziren alargunak horren arriskutsuak, ez baitzuten gizonik aldamenean eta gainera sexu harremanak ezagutzen zituzten.

Emakumea gizartearen gaitz guztien jatorria?

Bai. Diskurtso hori ez da berria. Pandora dugu kultura klasikoan, Eva kristautasunean, eta abar. XVI. mendean, betidanik ezarri izan den emakumeen gaineko kontrola areagotu zen, besterik ez. Idealak sortzen dira, eta horien arabera emakumeek kastitatea edo ama izatea proposatzen zaie. Ama Birjina ideal guztien gailurra da, birjina eta ama delako aldi berean. Oso interesgarria da ikustea nola batzuetan ideal horiek talke egiten duten Nafarroako emakumeen izaerarekin.

Zertan talka?

Gerra eta konkistaren ondoren Nafarroan alargun pila gelditu ziren. Egoera horrek zorigaitzez gain, aukera berriak ere ekarri ohi zizkien emakume horiei. Lehendabizikoa aldiz askatasuna zuten etxeak, ondareak eta familiak kudeatzeko.

ko. Legearen aldetik hori babestu zen, nolabait. Nafarroan bi figura juridiko ezarri ziren: alarguntasuneko usufruktua eta ordainsaria edo dotea. Usufruktua gaur egun badago ere, –eta ez soilik emakumeentzat–, garai hartan aukera ematen zion emakumeari senarrarekin izandako ondare guztiak kudeatzeko. Baina horretarako baldintza batzuk bete behar zituen emakumeak: usufruktua gozatuko zuen alargun eta batere harreman sexualik gabe segitu bitartean. Beraz, alarguntza legearen bidez jokabide sexuala kontrolatzen zuten. Usufruktua gal zitekeen, modu berean, sorginkeria akusazioarengatik. Hori hala izanda, familien barne historia pila ikusten dira prozesuetan, batzuk oso gogorak. Batzuetan, adibidez, semeek ama salatzen dute paretik kendu eta ondareak berenganatzeko. Usufruktua alarguna babesteko sortzen da, baina aldi berean familiaren batasuna bermatzeko. Horrela ziurtatzen da, hein batean, alarguna etxean geldituko dela seme-alabak zaintzen eta ez dela jabe berririk sartuko etxean.

Nafarroatik kanpo ere gertatzen zen?

Beste lurralde batzuetan ere bada, Katalunian eta Aragoi kasu. Baina hemen bada bigarren figura juridiko bat emakumearen rola are gehiago indartzen duena: ordainsaria edo dotea. Alargun gelditutakoan, emakumeak erabakitzen ahal du usufruktua gozatzea edo bere dotea berreskuratzea. Nafarroako berezitasuna zen saria oso-osorik berreskuratzen zela. Ez zuen senarraren familiari edo seme-alabei zati bat eman beharrik. Gorteek erabaki zuten emakumeak direla haien dotearen jabeak eta kudeatzeko eskubide osoa dutela. Hemengo emakumeek autonomia pittin bat gehiago ematen die Europako beste lurraldeekin alderatuta.

Hor ikusten da emakumeen inguruko ideal handiek talke egiten dutela errealitatearekin. Idealek emakumeari apala izatea, mendekoa izatea, eskatzen diote, baina batzuetan errealitatean bere jokatutakoak bestelakoa da eskubideak zituelako eta ohiturak pisu handia zuelako.

Babestuago egon dira alargunak, beraz, Nafarroan?

XVI. mendean, Nafarroan, emakumeek eskubidetan zertxobait aurrerago geunden ohituraren pisuagatik bereziki. Ez

Gizonak ere biktimak

“Gizonak ere patriarkatuaren biktimak dira eta asko sufritzen dute, gainera. Askok norabidea galduta dute, eredu tradizionalak ez diete balio eta guk ez diegu beren lekua ematen. Askotan badirudi emakumearen askatasuna dela guk dena egitea: emakumearen papera, gizonarena... dena. Eta haiek non gelditzen dira? Harreman horizontalagoak behar dira”.

Eredu femeninoaz

“Gaur egungo eredu femeninoak ez dira egokienak. Orokorrean, askatasuna lan merkatuan aritzea dela uste da. Niri ez zait hori hala denik iruditzen eta Angela Merkel eredu femeninoa izatearekin ere ez nago ados”.

Animaliatasuna

“Gizonak berdin zaindu dezake haurra, ados, baina puntu bateraino. Askotan diskurtso horietan gure animaliatasun aldean ahazten dute”.

ziren askeak, ezta gutxiagorik ere, baina Italia, Ingalaterra edo Gaztelan baino hobeki zeuden. Aragoiarekin alderatuta ez zen alde handirik eta Holandako egoera ere parekoa zen.

Askotan hitz egiten da euskal matriarkatu mitikoari buruz. Zuk kontatutakoak izan lezake eraginik izaera horretan?

Ez. Patriarkatua gizonen nagusitasuna bada, matriarkatua emakumeena da eta Historian ez da halakorik ezagutu he-

“XVI. mendean, betidanik ezarri izan den emakumeen gaineko kontrola areagotu zen, besterik ez. Idealak sortzen dira, eta horien arabera emakumeei kastitatea edo ama izatea proposatzen zaie. Ama Birjina ideal guztien gailurra da”.



men. Matriarkatuan emakumeek agintea lukete eremu pribatuan eta instituzionalean, eta halakorik ez da inoiz gertatu izan. Jende askok, horretaz hitz egiten duenean, eremu pribatua baino ez du buruan. Etxe askotan amek agintzen dute, baina hori emakumeoi zaintzaren ardura egokitu zaigulako da, eta gainera, harrotasunez bizi izan dugu sinetsiz gure botere eremu naturala dela. Funtsean, emakumearen botere eredu mugatzeko modu bat da. Guk oso ongi

egiten dugula eta gu gabe ez duela funtzionatuko esaten digute, baina tranpa bat besterik ez da.

Birjinak edo putak sailkapena, azken 500 urteko kontu bera?

Liburuan saiatu nintzen azaltzen nola Historian diskurtsoak oso antzekoak izan diren eta horretarako bi une historiko hartu nituen alderaketa egiteko: konkistaren garaia eta Gerra Zibilean, Pilar Primo de Riveraren hitzak.

Hizkera aldatzen da, baina mezua ez. Zigortzeko mekanismoak ere antzekoak ziren: bazterketa eta zigorra. XVI. mendean “lotsa publikoa” egiten zen: emakumea asto gainean jarri biluzik eta kaleetan barna eramaten zuten, zartailuaz jotzen zuten eta bere bekatu berri ematen zuen aurrean zihoan pregoilariak.

Gerra garaian ere horrelako zerbait egiten zuten “gorriekin”. Denok ikusi ditugu emakume kaskamotzak, errizino

olioa edanda eta beherakoari eutsi ezinik, kalez kale eramanda, jendearen iseka eta oihaak pairatzen. Sorgin prozesu asko ere, zigor hutsak izan dira emakumeak, alargunak bereziki, doktrinatze-ko eta diziplinatze-ko.

Eta gaur egun?

Diskurtso horiek oso barneratuta ditugu gure DNAn. Nahiz eta feminista zarela pentsatu, barne kontraesan pila duzu. Amatasunarekin, adibidez. Adin batera iritsita ama ez bazara desnaturalizatua ikusten zaituzte askok. Ama bazara eta zure lanaren alde apustua egiten baduzu, gaizki, kapitalismoaren biktima zarelako. Alderantziz egiten baduzu eta etxean gelditzen bazara, patriarkatuaren biktima zara.

Emakumeok, beste emakumeekiko, askotan gogorragoak gara gizonak baino. Uste baino barneratuagoa dugu diskurtso hori eta nolabait saiatzeko gara betetzen. Guk baino askatasun handiagoz jokatzeko duen emakumea ikusten dugunean, haren aurka egiten dugu bortizki. Geure burua zigortzen dugunez, besteak are gehiago.

Azken hitza:

Ama lurraren erlijiotik izarretako erlijiora

"Humberto Maturana zientzialari txiletarrak kultura matristikoaz hitz egiten du. Matrize edo umetokia hitzetik letorkeen kontzeptua da. Berak eta Claudio Naranjo *La mente patriarcal* liburuan azaltzen dute nola Paleolitikotik Neolitikora pasatzean sortu zen patriarkatua, Europa Erdialdeko teoria batzuen arabera. Paleolitikoko ehiztariak eta biltzaileak ziren. Ez omen zuten banaketa hierarkikorik, ez arma edo harresiak, gizarte horizontalagoa zen eta ama lurrari, emankortasunari, ematen zioten garrantzi handiena. Neolitikokoaren zibilizazioa kanpotik etorri eta nagusitu zen. Neolitikokoan, nekazaritzari esker, lehen aldiz dugu behar duguna baino gehiago eta horrela areagotzen da jabetza sentimendua eta besteak balizko arerio gisa ikusteko joera. Garai hartan hasten dira harresiak altxatzen eta labore sailak banatzen. Idazketa eta matematikak sortzen dira, eta izarrek eta eguzkia begiratzen hasten dira. Ama lurraren erlijiotik izarretako erlijiora pasatzen dira. Pentsamendu abstraktua areagotzen da eta horrek dikotomia dakar: ama lurra femeninoa da, ezegonkorra, arriskutsua. Izarrak, aldiz, fidatzeko modukoak dira, seguruagoak eta maskulinoarekin identifikatzen da. Egoera horretan sortzen da patriarkatua eta kapitalismoa ikerlari horien arabera".

Etorkizunerako zer proiektu dituzu?

Tesia egokitu nahi dut Pamielarekin argitara emateko. Bestalde, sorginkeria eta kapitalismoaren inguruan idatzi

nahi dut. Sorginak sistematik kanpo zeuden emakume arruntak ziren gehienetan. Askotan mediku gizonekin talka egiten zuten emagin eta sendagileak. ■

Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ

Mundua ulertzeko beste begirada bat, ARGIAren eskutik.

ARGIA

Egin ezazu eskaera:

943 371 545 | www.argia.eus/denda | denda@argia.eus



Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Noren esku dago?



Estitxu Garai Artetxe

EHUKO IRAKASLEA

@egarai

Polarizazioa. Alderdi zaharrak eta berriak. Sistemak berdin jarraitzearen aldekoak eta aurkakoak. Horixe da Espainiako komunikazio-etxe handiek sortu eta kanpainan behin eta berriro elikatu eta puztu dutena. Etsaia irudikatzea ez da zaila izan batzuentzat eta besteentzat. Mezua garbia zen: datozen hauteskundeek benetan eragingo dute zure egunerokoan, une historikoa da eta ezin zara etxean geratu. Gainera, duzun alderdi-sorta berri honekin, topatuko duzu zure neurrikoa izan daitekeena.

Polarizazio horren sareetan jausi gara euskal herritarrok ere. Podemos izan da aldaketa nahia ondoen kapitalizatzen jakin duena eta bozak estatuan deseroso dauden lurraldeetan lortu ditu batik bat. Horretarako, ordea, anemometroa fin duela erakutsi behar izan du. Haizea nora, mezua hara.

Alderdi morearen lehenengo urratsetan estatuko nazioen aferra saihestu beharreko gaia zen. Erabakitze eskubidea hasieratik erabili dute hitzetik hortzera, baina lurralde arazotik bereizi nahian eta "guztia" erabakitzea estalki hartuta. Hori garbi ikusi zen Kataluniako hauteskunde-kanpainan. Herria plebiszitu usaindun zitarako prestatzen zen bitartean, lehentasuna beste bat zela esan eta esan ibili zen Pablo Iglesias. Gizarte premia larrien haize hotzak ufada independentista apaldu zezakeelakoan zeuden. Emaizetan jasotako zartadak argi erakutsi zien ezetz, batak ez duela bestea kentzen.

Orduz geroztik diskurtsoa erabat moldatu du Podemosek. Erreferendum loteslearen alde lerratu da. Beste indar batzuekin aliantzak ahalbidetzeko ez zitzairen beste erremediorik geratzen eta Kataluniak Espainiako Kongresuan duen eserleku kopurua ez da ahuntzaren gau erdiko eztula. Espainiako hauteskunde osten ere "marra gorri-

Erabakitze eskubidearen prisma irakurketa baikor samarrak egin dira Podemosek Nafarroan eta EAEn lortutako emaitzen harira. Nago, mugimendu independentista indartsu bat izan ezean, zaila izango dela hortik aurrerapauso esanguratsuak lortzea

tzat" ezarri du kontua, alderdi sozialista higitzeko posizio eroso batean.

Nolanahi ere, Senatuan alderdi popularrak duen gehiengoarekin, erreferenduma aldarrikatzea haizea orraztearen parekoa da. Badakite aldebiko onarpena duen galdeketa gauzatu ezina dela

gaur gaurkoz. Hori bideratuko lukeen Konstituzioaren 92. artikuluari egiten diote men, baina argazkian Espainiaren batasun banaezinaz mintzo den 2. artikuluko pleonastikoa baino ez da agertzen.

Hego Euskal Herriko lurraldeetako balizko galdeketa bati buruz, berriz, ez dute txintik esan, ez behintzat Madrildgo liderrek. Eta hemen ez da egon ez Colaurik ez marearik, hemen hauteskundeak Madrildik irabazi dituzte. Erreferenduma Kataluniako "arazoa" konpontzeko tresna gisa aurkezten dute, baina une honetan Euskal Herria ez da "arazo". Erabakitze eskubidearen prisma irakurketa baikor samarrak egin dira Podemosek Nafarroan eta EAEn lortutako emaitzen harira. Nago, mugimendu independentista indartsu bat izan ezean, zaila izango dela hortik aurrerapauso esanguratsuak lortzea.

Zentzu horretan, aintzat hartzekoak dira EH Bildu koalizioak izandako emaitza kaskarrak. Ezker abertzaleak tentuz jarraitu beharko du Podemosen bilakaera. Batetik, Nafarroan gertatu bezala, aukera berriak sor daitezke justizia sozialaren eta gizarte eraldaketaren aldeko koalizioak egiteko. Bestetik, oster, aliatu taktiko koiunturala izan arren, ezkerreko mugimendu independentistarentzat beti izango da aurkari jomuga estrategikoan.

Espainiak aurpegi atsegin eta pertsuasiboago bat topatu du, unionismoa aldeztuko duen adar demokratikoa goa. Kontua da horrek zenbat ahiu dezakeen independentziaren aldeko nahia, lehentasunak beste batzuk direla aitzaki hartuta. Espainian beti egongo da zer konpondu, beti egongo da epe motzera garrantzia duen beste zerbait. Gerta daiteke Podemosek Espainia ez aldatzea, baina bai Katalunia eta Euskal Herria. Gure herriaren etorkizuna... noren esku dago? ■

Galdutako altxorraren bila

Castillo Suarezen blogean irakurri dut: “Galdutako altxoraren bila”. Eta burutik kendu ezinik nabil. Uste dut, nik neuk idatzi izan dudala haurtzaroa dela norberaren aberria. Orain ez dakit deserrian galtzen den haurtzaroa, edo haurtzaroa galtzean geratzen den bat deserrian trabatuta. Biak izan litezke. Deserrian bizi ziren nire pertsonaia batzuek umeekin oso tematuta ziruditen, hori bai. Esango nuke, umeak direla deserrian norberaren haurtzaroa topatzeko bidea. Haien haurtzaroaren eskutik berreskuratu daiteke norberarena, urruneko lurralde batean galdutakoa. (Hitz hauetan norbaitek umeak izateko apologia irakurri nahi balu, oharra: Umeek ez dute zertan norberarenak izan behar).

Nik karratu zuri-gorriak zituen poltsa batean galdu nuen lehen haurtzaroa etxe-aldaketa batean. Edo poltsa harekin. Poltsa hartan zer zegoen, intuizioak esaten dit: liburuak. Astiro-astiro egiten ditut loturak. Katarisia duela urte bat izan nuen, Bilbon euskarara itzulitako animaziozko film frantses bat semearekin ikusten nengoela: *Ernest & Celestine*. Pantailako irudi haiek –trazu arin batekin dantzatzen– eta pertsonaia haiek ezagutzen nituen. Nire memorian zeuden. Nire barruan. Etxean egoteko Ernesten bata eta Celestineren euritakoak aurkitu nituen, altxor handi baten lehen bitxiak aurkitu izan banitu bezala. Ernest hartzak eta Celestine saguak beste izen bat zuten nik –eta nire belaunaldiko haur askok– izandako Gabrielle Vincenten liburu euskaratuetan. Zesar eta Ernestinaren ipuinak poltsa zuri-gorrian galdu nituela jakin nuen Bilboko zinemako areto ilunean (akaso baten batek gordeta izango ditu).

Beste agerpen bat izan nuen geroago Berlinen, orduko hartan, Danimarkako



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

animaziozko film bat ikusten. Filmak aurrera egin ahala, eta umeek horman marraztu zuten errinozerontea gorpuztuaz batera, borratuta zirudien liburu baten istorioak gorputza hartu zuen nire barruan. Nagusiago nintzeneko beste liburu bat agertu zitzaidan, *Otto errinozerontea da*, berriz ere ustekabea.

Galdutako altxorrak aurkituz noan heinean, umetan irentsitako istorioen kalitatearen kontzientzia ere hartu dut. Itzulpen haiekin Europako haur literatura jarri ziguten eskuetan. Eta orduan hainbat klasiko irakurri gabe geratu banintzen, orain, umeekin, galdutako haurtzaroa berreskuratzeaz gain, bigarren haurtzaro alternatibo bat sortzeko aukera ere badaukat. (Bide batez, deserrian aberri berri bat eraikitzeke aukera ere badena). Azkenik. Astrid Lindgrenen istorioak irakurtzeko okasioa! Laster etorriko da Mariasun Landaren liburuen txanda ere bai!

Noski, interes propioen arabera aukatzen ditut umei irakurtzen dizkiedan liburuak eta haiekin ikusten ditudan filmak. Baina proposamenak ere gus-tura onartzen ditut. (Seguruenez *Star Wars* ikusi beharko dut). Eta elkarrekin egiten dugu bidaia, abentura. Elkarrekin egiten dugu barre. Hitz egiten dugu gauza tristeez ere bai, gerraz adibidez. Izan direnez eta egun direnez. (Ezin utzi gaiari buruzko bi libururen gomen-dioa egin gabe: Leire Bilbaoren *Gerrak ez du izenik* eta Claude Dubois-en *Akim ihesi*).

Gauetan, haur literaturako saioen ostean, denbora eta energia gutxi gertatzen zait beste irakurketa mota baten-tzako. Edo irakurketarekin zerikusirik ez duten, baina gauerako utzitako beste egitekoetarako. Baina aberria (ber) eraikitzeke duenak nekeak hartu behar dituela edozein euskaldunek ulertuko duelakoan nago... ■

Urbeltzen Argia



Oier Araolaza

DANTZARIA

@oaraolaza

Orain 50 urte bezala, gaur egun ere, *mainstream* izan eta kultura nagusien ekoizpen komertzialekin homologatzeko obsesioak gidatzen ditu euskal dantzari saiatuen oinak. Aldi berean, orain bost hamarkada bezala, bazterrean, itzalean, fokutik kanpo, erditu dituen dantza isolatu eta gutxietsian diraute euskal dantzari elebakar kikilduek, Youtube globalaren aroan euskal dantza hutsean bizi daitekeela frogatuz eta euskal dantza haien baitan osorik bizi dela erakutsiz.

Baldorbarekin kantu bidez egin bezala, bide-tik baztertu zituztenak madarikatu eta euskal kulturaren geografia irauli zuen dantzaren bidez Juan Antonio Urbeltzek. Nafarroa euskal kulturaren erdigunean jartzeko ahaleginean tematu zen lehenengo: Iribas, Jaurrieta, Otsagabia, Imotz, Ituren... Euskal dantzaren harribitxiak herri eta auzoetako plaza eta ganbara ahaztuetan bildu eta hirietako antzokietara eta frontoietara ekarri bazterrekoa erdira ekarri nahi izan du Argiak.

Eskiulatik Ekorara, Heletatik Lanestosara, Abaltzisketatik Fustiñanara, festa, jantzi, dantza eta musikaren bidez Euskal Herria ezagutzeko eta maitatzeko bidea eskaini du eta eskaintzen du oraindik euskal dantzak. Herriz herri, auzoz auzo, festaz festa, herritarrak dantzan jartzea eta dantzan segitzea izan da euskal dantzaren mugimendu zabal eta oparoaren arrakasta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Urrezko Domina eman dio Juan Antonio Urbeltzi 2015 urtearen hondarrean. Sari honekin, Marian Arregik eta Juan Antonio Urbeltzek 1966ko udazkenean Argia dantzari taldearen gidaritza hartu zutenetik euskal dantzari eta euskal kulturari egindako ekarpena aitortu eta eskertu nahi izan dietela adierazi du Markel Olano Ahaldun Nagusiak.

Izendapena pertsonala da, baina errekonozimenduak Argia euskal dantzari taldeaz haratago ziprztintzen du. Argiak goldatzen erakutsita, bazterreko geografian sororik soro erein eta uza jaso duten hainbat dantza talderentzat ere bada aitortza. Baita euskal munduaren historia modernoan gizarte kohesioa eta herri nortasuna gorpuzten eta gorputzaren bidez dantzatzeko lagundu duten euskal dantzari eta euskal dantza talde guztientzat ere.

Argia bazterreko txokoetan jartzen erakutsi digute Juan Antonio Urbeltzek eta Marian Arregik, eta orain haitzuloetan hormako arte adierazpenak bezala, bazterrik bazter eta txokorik txoko dantza adierazpen zoragarriak ezagutarazi dizkigute. Dantza tresna politikoa dela eta tresna hori herrigintzan baliatzeko ardura soziala dugula erakutsi digute. Euskal dantzaren lengoaiaren oinarriak ezagutu eta berau berritzeko eta birsortzeko tresnak eskura jarri dizkigute. Gau ilunean bidea erakutsi digu Urbeltzen Argiak. ■

Dakar



Joanes Etxebarria

KAZETARIA

AFP agentzia ofizialaren arabera: 63. Webgune serioen baten arabera: 71. Paris-Dakar lasterketak utzi dituen hilen zenbaketak dira. Utzi Frantzia eta utzi Afrika, eta Argentina eta Boliviako lurretan higatzen dira orain pneumatikoak. Edo, hobeki erranik, pneumatiko azpian higatzen da hango lurra orain, Afrikakoa beltz-beltza utzirik.

Dakar.com helbidean aipatzen diren baloreetan "abentura humanoa" da lehena. Jatorri desberdineko lasterkariak hizkuntza bera mintzatzen dutela diote antolatzaileek. Hiru baloreetan bigarrena, "lasterketa extremo" da. Biak elkarturik,

eta hilen zerrenda gogoan, zer pentsatua ematen du jadanik.

Hirugarren balorea, eta hilen zerrenda oraindik ere gogoan, "aurkikuntza". Hamarkadetan Afrikan lehenik, 2009az geroztik Hego Amerikan, ez dira gehiago belaontziak lur sakratuen aurkikuntza ziurtatzen dutenak, baizik eta errota gaineko motor indartsuak.

Hilen zerrenda kasik ahantzarazi dezakeen informazio bat ere badu Dakar lasterketaren webguneak: ingurugiroan eragiten duen kaltea "konpentsatzen" baitu lasterketak. Hori nola egi-ten duen? Lasterketa bera bezala, diruarekin. ■

Gu eta gure kontraesanak

Koherenteak izan behar dugula erakusten digute. Gauza bat esaten badugu hura egin. Pentsatzen dugunaren arabera jokatu. Gure ekintzen ondorioak asumitu. Bizitzaren alor guztietan entzuten dugu prediku bera, eta kolore guztietako sinesmen eta ideologiek egiten dute bat koherentziaren laudorio horretan. Logikoa dirudi, eta, denak bat baldin badatoz, egia unibertsa izango da. Edo.

Baina gero errealtatea dator, bere kolore gris eta inkongruentziekin, bere *bai-baina* guztiekin. Ekologia eta natura defenditzen dituzu baina auto potente batean ibiltzea maite duzu; saio kulturalak goratzen dituzu baina telezaborra ikusten; haurrak euskal eredura bidali dituzu baina zuk erdaraz egiten duzu zeure senar edo emaztearekin.

Kontraesan horiek lotsaz bizi ditugu. Puruak izan nahi genuke, eta bekatuaren orbana ezartzen diote gure arima zuriari. Gero, ateoak izanik ere katolikotasunak formateatu duenez gure gogamena, egingako hutsa aitortu, onbideratzeko asmoa agertu, eta *aurrera mutikal!* Tolerantzia barkabera izango da besteen kontraesanekin, besteek ere norberarekin hala jokatu dutelakoan; sanedrin guztietako sermolaria, berriz, jo eta sua ariko zaizkizu, zure



Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA

@xme64

Baina zer, kontraesana gure nortasunaren akats ez baizik eta geure izatearen partetzat onartuko bagenu? Inor ez da altruista hutsa, ezta erabateko egoista ere

koherentzia-huts horiek etengabe salatzen eta aurpegiratzen.

Baina zer, kontraesana gure nortasunaren akats ez baizik eta geure izatearen partetzat onartuko bagenu? Inor ez da altruista hutsa, ezta erabateko egoista ere. Prentsa espainolista erosi eta hauteskundeetan botoa abertzaleei

ematen diena, sistematikoki gainera, zuzendu beharreko gizajo alienatutzat jo ohi da (edo botoa edo periodikoa, bietako bat aldatu beharko duena noiz-bait, koherente jokatzekotan); baina jokabide hori agian ez genuke anormaltasuntzat hartu behar, kaxoi zehatz batean mugaturik egon nahi ez duenaren ñabarduratzat baizik: "Zuetarra naiz, baina ez iezadazue kaparrada eman" esaten ari zaie, inkontzienteki, abertzaletasunaren apostoluei; eta era berean "zure gezurak erosten ditut, baina ez pentsa irensten ditudanik", botatzen dio xaloki prentsa-jabe espainolistari.

Botoa ere, orain arte finko samarra izaten zen esparruetan, aldakorra eta hegakorra ari da bihurtzen. Politikari batzuk, orduan, hautesle aldaberarekin haserretzen dira: "Zuk hau eta hau defendatu izan duzu, eta ez al zara ohartzen beste horiek kontrako balioak aldeztu dituztela?". Beste batzuek bere burua zigortzen dute: "Zer egin dugu gaizki, boto-emaileek bizkarra eman diezaguten?". Seguru asko, errietak bezain zentzugabeak dira autoflajelazioak; nolana ere, ez arduratu gehiegi, laster dator eta beste karta-partida bat, beste bozketa bat, geure kontraesanak agerian gera daitezen ostera ere, batzuen poz eta besteen atsekaberako. ■

tradebi
EB Traducciones Itzulpenak, S. L.
www.tradebi.com

LUA arkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
perifazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgailzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

Eskulanen Etxea

Elkano kalea, 5 - 20004 Donostia
T. 943 420 205 / 688 662 858
info@casalabores.com
www.eskulanenetxea.com

ARGIA 2016ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz jazteko

EGURREZKO
TAULA

50€

egutegia opari

Historia gaiak
Hitzokeiak
Etixerako gomendioak
Zientzia
Baratzia
Errezetak
Efemerideak
Santuak
Euskal izendegia
Eguzkia, ilargia eta mareak



Eskaerak:

www.argia.eus/denda • denda@argia.eus • ☎ 943 371 545

FRANKISMOAREN AMARAUNEAN HARRAPATUTAKO JELTZALEA

Miguel Jabier Urmeneta (1915-1988). Bigarren Errepublika, Frankismoa eta Trantsizioa liburua idatzi berri du Roldán Jimenok eta euskarara itzuli Asisko Urmenetak, Miguel Javierren semeak. Pertsonaiaren biografia ezohikoaz berehala ohartuko da lerroon irakurlea. Eztabaida sutsuak pizten ditu, 2014an Yolanda Barcinaren Gobernuak domina eman zionean argi ikusi zen gisan.



Xabier Letona

@xletona

ARGAZKIAK: "MIGUEL JAVIER URMENETA (1915-1918)" LIBURUA

1936ko uztailaren 18ko estatu kolpearen ondorioz, lehenengo atxiloketa eta afusilatzeak hasi ziren Nafarroako hiriburuan. Aurreko egunetan Alejo Heletak esana zion Maria Ajarnauteri, bere senar Ataulfo Urmeneta fusilatu behar zutela. Berriozarreko erretore eta erreketeen konfessore José Solabrek ere jakinarazi zien zerbait gertatzekotan Miguel Javier semea haren bila joateko berehala.

Ataulfo Urmeneta EAJko kide ezaguna zen Iruñean eta Miguel Javier Urmeneta bera ere EGIko kide nabarmena. Ondorengo egunetan lagunak bildu zituen Urmeneta gazteak eta zera esan zien: "Dagoeneko ez duzue pentsatu behar noren alde egingen duzuen gerra, baina nola duzuen egingen". Eta hala joan ziren erreketeeekin Madrilgo frontera, Nafarroako beste ehunka gazte eta nagusi bezala, "bolondres". Hamaika seme-alabaren aita izanik, Ataulfo gerrara joatetik salbuetsi zuten; ondorengo urtee-



Miguel Javier Urmeneta gazte jeltzaleak erreketeeekin joan behar izan zuen 1936ko uztailan, gerra Francoren alde egitera.

ROLDAN JIMENO, LIBURUAREN EGILEA:**“Memoria historikoan pioneroa izan zen Urmeneta, eta hori ez zaio aitortu”**

Liburuan dokumentazio lan itzela dago, baina iruditu zait bere gauza onak azpimarratzen direla batez ere.


Ez, gauza onak eta txarrak zituen, eta guztiak aipatzen dira. Adibidez, Gerra Zibilaren ondorengo bere lehen destinoa Auritzen izan zen, preso errepublikarren kontzentrazio gune bateko buru.

Gerraz gutxi hitz egiten da liburuan.

Bere memorietan ikusten da ez duela nahi hortaz aritu. Idatzitako hainbat artikulutan ikus daitekeenez, badu doktrina militarra, baina ez doktrina ideologikoa eta hori salbuespen nabarmena da garai hartan idazten zuten militarretan.

Asko egin zuen eta asko idatzi zuen, baina frankismoaz ez du hitz egiten oro har. Frankismoaren barruko gizon teknikoa da bera?

Berak ez zuen bere burua frankistatzat hartzen. Bere politika oso teknikoa izan zen, baina bere ideologia ez frankistatik apustu irmoak egin zituen politikatik. Bera alkatetzara heldu aurretik Txantreako kale guztiei bando nazionalako erorien izenak jartzen zitzaizkien eta bera heltzean politika hori moztu eta herrien izenak jarri ziren. 1965ean, adibidez, diputatu zenean eta Enbatakoekin zuen harreman handia medio, Kristiane Etxaluz etakidea lagundu zuen hau Iruñeko espetxean zela, Erorien Monumentua zartzatzeko ahaleginaren ondoren. Erorien Monumentuari izaera frankista kentzeko proposamena egin zuen orduan Urmenetak, baina ez zioten onartu. Garai hartarako memoriaren oso ikuspegi aurreratua zuen. Zeresanik ez



euskara eta euskal kulturarekiko, berarengatik izan ez balitz, ez zen ikastola bakarra irekiko Nafarroa osoan. Oso teknikoa zen, baina bere ideologia ere sartzen zuen.

Nola baloratzen duzu Nafarroako Gobernuak 2014an emandako dominen afera?

Felix Uharteri eta Urmenetari eman zizkien dominak, baina uste dut batez ere

Uharteri eman nahi ziotela eta horretarako Urmeneta baliatu zuela, Uharteri baka-rrik ematea legez kanpokoa izango zelako memoriaren ikuspegitik.

Memoriaren Autobusa eta halakoetatik kritika gogorak egin zitzaizkien bi dominei eta Urmenetaren kasuan txinpartak sortu ziren. Zuk aipatu izan duzu ez zenituela kritika horiek ulertzen.

Ez, ez da horrela. Nik kolektibo horietako partaide naiz eta oso gertukoak sentitzen ditut, baina esan izan dut egindako kritika batzuk testuingurutik kanpo egin zirela eta beste batzuk datu faltsuetan oinarritzen zirela, esaterako Urmeneta Uharteren enpresetan sartuta zegoela eta halakoak. Urmeneta izan zena izan zen, Gerra Zibilean aritua, Errusian Dibisio Urdinean... hori guztia nik ere esaten dut liburuan, baina memoria historikoaren ikuspegitik aztertuta, aitortu behar zaio pioneroa izan zela estatu mailan modu instituzional batean frankismoaren sinboloak kentzen, eta hori ez zaio aitortu.

Euskarazko bertsioan liburuak ez du ez oin-oharrik, ez bibliografiarik, mutilatua dago. Zergatik?

Itzulpena Asiskorena da, baina hori baino gehiago ere bai. Berari gustatuko litzaiokeen liburuak egin du, nire edukia aldatu gabe, baina ekarpen batzuk eginda: sarriera oso pertsonala, oin-ohar asko testuan integratu ditu, bibliografia kendu dio... Nire liburuak formaz ortodoxoagoa da, Asiskoren lana, batez ere itzulpenean euskararekin egindako apustuagatik, literarioagoa.

tan auzipetu egin zuten eta ondasunak bahitu zizkioten, baina bizirik atera zen. Aita salbatzeko jo zuen semeak gerra-
ra, baina burua nahasi: “Alistatu egin nintzen arrazoi esplikagaitzak direla-
eta, bai eta neure buruarentzat ere”, utzi zuen idatzia Miguel Javierrek.

Francoren alde egin zuen gerra karlistekin eta gerra amaitu ondoren boluntario joan zen Dibisio Urdinean, naziekin borrokatzera Errusiako gerra frontera, kapitain gisa. Hitlerren armadak Bur-

» Francoren alde egin zuen gerra karlistekin eta hau amaitu ondoren boluntario joan zen Dibisio Urdinean, naziekin borrokatzera

dinezko Gurutzearekin saritu zuen. Handik itzuli eta Espainiako armadan jarraitu zuen teniente koronel kargua lortu arte. Abokatu ikasketak zituen eta ingelesa zekien, ikasle fina zen aurretik eta militarren artean ere bai. AEBetara bidali zuten ikastera Espainiako Armadaren ordezkari gisa. 33 urterekin Armadaren Estatu Nagusiko komandante izendapena lortu zuen. Militarren irakasle ere aritu zen eta taktika militarrez ere idatzi zuen militar argitalpenetan.

Iruñeko alkate eta foru-diputatu

Espainiako armadan bide garrantzitsua egin zuen eta bazen nor, horrek ate asko ireki zizkion Iruñean ondorengo hamarkadatan. 1954an Iruñeko Aurrezki-Kutxa Munizipaleko zuzendari izendatu zuten, aurreko zuzendaria zen Ataulfo aitaren heriotzaren ondoren; 28 urtez jardungo zuen karguan. Tartean, ordea, beste kargu eta lan ugari bereganatu zituen, besteak beste Iruñeko alkate (1958-64) eta foru diputatu (1964-1971) izan zen.

Frankismoko agintari ez ohikoa izan zen, gertukoenek frankista ez zela esateraino. Denbora horretan guztian ez zuen gaztetako abertzaletasuna ahaztu, ezta euskara eta Euskal Herria batua- ren ideia ere, beti ere Espainia barruan. Frankismoaren amaraunean harra- patua geratu zen 1936an, baina hala ere ez zen geldi egotekoa. Kutxako zu- zendaritzatik eta alkatetzatik Iruñean proiektu aurrerazale ugari bideratu zituen etxegintza alorrean edo auzoe- tan. Industrializazioari ere bultzada garrantzitsua eman zion, Armadare- na zen Iruñeko Zitadela berreskuratu zuen hiriarentzat, euskara eta euskal kultura bultzatu zituen, diputaziotik euskara “planak” egiteraino... eta 60ko hamarkadan, Diputazioko bere aulkia giltzarri izan zen Nafarroako ikastolen sorrerarako. Opus Deiko Nafarroako Unibertsitateari Iruñeko ateak ireki ziz- kiona ere bera izan zen. Aginte molde pertsonalistarekin, alkate eta diputatu herrikoia izan zen, egindako omenaldi ugariak erakusten duten gisan. Euskal- tzaindiako ohorezko kide ere izendatu zuten.

Kargu ugari eskaini zizkioten Madril- dik eta gehienei uko egin zien: ministro izatea; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gobernadore zibila Trantsizioan; Felipe printzearen hezitzaile... Beste asko le- gez, bera Francorik gabeko garaia beha zegoen jada. Baina langileen grebetan artekari lanak egiten zituen agintari-mi- litar bitxi hark gero eta etsai gehiago pilatu zuen errejimenaren hainbat gu- netan, Diputaziora itzul ez zedin kons- pirazio eta guzti baztertu zuten frankis- moaren amaieran. Kutxako zuzendari postutik jarraitu zuen lanean eta, Artu- ro Kanpionen miresle, berak sortutako Frente Navarro Independientearekin aurkeztu zen 1977ko hauteskundeeta- ra. Porrot egin zuen.



Urmeneta Iruñeko alkate makila jasotzen 1958an. Sei urtez jardun zuen alkate eta Trantsizio garaian itzuli zen zinegotzi gisa. Ikurriña Iruñeko Udalera eramane zinegotzi taldean zegoen.



Francorekin hainbatetan bildu zen, honetan Nafarroa eta Ipar Euskal Herria bilduko zituen autobideaz jarduteko.

ASISKO URMENETA, MIGUEL JAVIER URMENETAREN SEMEA: “Liburuarekin liberatu naiz eta aita lurperatu dut”

Liburuarekin irudi luke arantza bat kendu duzula.

Arantza baino gehiago, liberatu naiz eta aita lurperatu dut. Hil zenean 22 urte nituen, bosgarren semea, garai hartan nahiko punkia... aita zaharra, militarra izana Iruñea txiki hartan... Izena galdetzen zidatenean “Asisko” esaten nuen; abizenaz, “Urmeneta” nioen, baina aho txikiarekin eta berdin haren semea nintzela. Maite nuen, baina urtetan gaizki eraman izan nuen. Roldánen lan hau oso ongi etorri zait, barrenak mugitu dizkit, negar franko egin dut eta asko ikasi dut aitaz. Ez dut bere ibilbidea justifikatuko, ez da nire lana –hark ere ez luke egingo seguruenik–, baina Roldánek eman ditu manera koherente batean nik etxean nituen aitaren argazki haiek guztiak. Azkenean aita ezagutu dut.

Erdarazko liburuan Roldán Jimeno da egilea. Euskarazkoan aldiz, itzulpenean, biok agertzen zarete egile gisa eta liburuak ez du oin-oharrik eta bibliografiarik. Zergatik?

Nolabait esateko, Roldánen lana da zientifikoa eta nirea agitatzailearena. Nire asmoa zen kapitulu bakoitzean aipatzen zena etxekook nola bizi genuen lehen



pertsonan kontatzea. Denbora faltagatik azkenean dena aitzin solasean bildu behar izan nuen. Itzulpena oso fidela da Roldánen edukiarekiko, baina testuaren lagungarri diren ohar eruditak kenduta.

Frankismoko pertsonaia garrantzitsua izan zen Nafarroan, baina liburuan aipatzen da ez zela frankista izan. Nola ulertzen da hori?

Une historiko honetan frankismoko gertaerak frankistatzat hartzen ditugu. Biheramunean Euskal Herriak independentzia lortuz gero, erran ahal izango genuke, erraterako, Uxue Barkos monarkia borbonikoaren agente bat dela? Bera ez zen aberastu, esaterako [Felix] Uhartek egin zuen bezala.

Familia jeltzalea eta bereziki aita salbatzeko joan zen reketeeekin Francoren alde. Berak hitz egin al zizuen noizbait ataka horretaz etxean?

Ez hortaz, ez gerraz. Noizbait atera zen etxean karlistak fatxak ote ziren, eta berak ezetz, karlistak espartinetako jendea zela. Aita bulego gizona izan zen, baina beti espartinetako jendeen alde, oso ikuspegi sozial handia zuen. Potasaseko langileen greban [1974], adibidez, bera hautatu zuten bitartekari lana egiteko enpresarekin.

Nola bizi izan zenuen iazko dominaren afera?

Izugarri gogorra izan zen. *Diario de Navarra* sekulako loreak aitari, egunkari hori beti aitaren aurka ibili zenean eta aitak ikusi ere ezin zuenean. Eta euskal medioetatik kritika ikaragarri gogorrak aitaren borroka beti haien alde izan denean. Yolanda Barcinaren maniobra politikoa izan zen aita eta Felix Uharteri domina batera ematea, eta denok erori ginen haren tranpan. Laburbilduz, uste dut garai historiko bakoitzean begiratu behar dela nork egiten duen egiazki herriaren alde eta nork ez.

Manifestazioetako iheslariak etxean jaso zitzakeen gizon heterodoxo hura, batez ere euskal kultura eta euskara bultzatzen jardun zuen azken urteetan bere lagun ugariarekin, besteak beste Jose María Jimeno Jurio, Pablo Antoñana edo Jorge Cortes Izal: UEU sustatu, Korrika lagundu, edo Euskalerrria Irratia sortu. Irratia sostengatzen duen Iruñeko Komunikabideak elkartearen sortzaile, akzionista eta lehen lehendakaria izan zen. Grinaz bizi zuen margoketan eta bere memorien idazte lanetan ere murgildu zen. Emaztea eta sei seme-alaba utzita hil zen 1988an.

Urmenetaren “biografia harrigarriaz mintzo da” Iván Giménez *El Corralito Foral* liburuan: “80etan Herri Batasunarekiko zaletasuna ere agertu zuen, biraketa ideologiko sinesgaitza eginez, Dibisio Urdinetik ezker abertzaleko ingurumarietara”. Urmenetaren esaldi



Erraldoien Konpartsaren omenaldia jasotzen Iruñeko Sarasate Pasealekuan, bere etxepean.

HUMANOA, HUMANOEGIA



Santi Leone
HISTORIALARIA

Segur aski, bigarren kapituluan dugu Migel Jabier Urmenetaren biografia-ko analisi ideologiko luzeena, *Amayur* aldizkarian Urmenetak eta haren aita Ataulfok Euzkadiko Historia grafikoa-ri eskaintzen diotena hain zuzen ere. Hortik abiatuta, etorriko diren urteetako eboluzioan gauza anitz esplikatzeko balio duen oinarritzko oposizioa ezartzen zaigu: barneko abertzalea vs kanpoko erregimeneko gizona; edo iraganeko abertzalea vs haren pindarrak barnean daramatzan itxurazko frankista; edo gauza "txarrak" –barkatu sinplekeria– behartuta egin zituen gizona vs gauza "onak" egin zituen politikari eskuzabala. Eskuzabala izan zela argi gelditzen baita biografia honetan, eta herrikoia, eta hurbila, eta zintzoa, eta langilea. Eta nik ez dut hori –argi gera bedi– zalantzan jarriko. Baina alde humanoa baino gehiago, alde politikoa ezagutu nahiko genukeen. Euskaltzalea zela erratea ez baita aski, euskaltzaleasuna kontestualizatu beharrik ez duen kategoria balitz bezala.

Hein handi batean, gizonaren biografia dugu hau, ez politikariarena: ez jarduera politikoaren berri ematen ez delako, baizik eta hura bertute humanoen bidez azaltzen delako. Eta hori akatsa da. Akatsa den bezala Asisko Urmenetari, itzultzailea izanik, egiletza aitortu izana euskarazko bertsioan, eta itzultzaileari inolaz ere ez dagozkion erabakiak hartzea –oin-oharrak eta bibliografia desgerraraztea– onartu izana, hark "zer monografia-mota irakurriko lukeen" aintzat hartuta. Hortxe baitago, naski, koxka nagusia. Liburu baliotsua idatzi du Roldán Jimenok, eta euskara ederrera bihurtu du Asiko Urmenetak, baina, halere, uste dut aukera galdua dela biografia hau. Migel Jabier Urmenetaren lan onak zerrendatzea gutxi-ko da, eta euskal irakurleari narrazioa inolako aparatu kritikorik gabe sinets dezala eskatzea, soberaxko.



Urmeneta-Otsoa familia. Goian, ezkerretik eskuinera, Asisko, Angela, Kontxita (emaztea) eta María. Behean David, Maitena, Mikel eta Miguel Javier.

esanguratsu honek izan dezake zeri-kusirik ikusmolde horretan: "Nik har nezake zati handi bat Partido Sozialistarengandik, europar sozialismotik; eta gauza bera egin nezake, jarrera intrantsigenterik gabe, EAJko area zabalekin; eta azkenik, bene-benetan, Herri Bata-sunarengandik".

Argi-itzalez betetako bizitza du baita ere Miguel Beroizek, Jon Alonso idazle iruindarraren *Hodei Berdeak* eleberriaren alegiazko pertsonaiak. Beroiz ere jeltzalea zen gaztetan, gero 36ko Gerrara Francorekin jo zuenetakoa, eta hala dio eleberriko bere lehengusu batek haren gerra kontakizunak baloratzerakoan: "Eta gainera, hor konpon, hemen gaia zen Beroizek gerra egiteko moduak zeintzuk ziren kontatzea, eta hori eginda dago, itsusiagoak eta makabroagoak izango ziren beste pasarte batzuk alde batera utzita, horiek ez baititu kontatzen, eta, zer nahi duzue esatea, ez naiz ni izango bekaketa aurpegiatuko diodana, gizonak ere badu bere burua edertzeko eskubidea, kontatzen duena, oinarrian, egia izateko baldintza bakarrarekin, eta alde horretatik aski frogatua geratu da enetzat ez duela tatxarik". ■



**TALLERES
MITXELENA**
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

EUSKAL NOBELA BELTZAREN ASTEA 2016

BAZTAN, ILBELTZAREN 18TIK 24RA

LAGUNDU DUTE :

berria **argia**



tti-
tapa



xalotelehisto

ELIZONDOKO HERRIA,
ARIZKUNGO GAZTEAK,
IRURITAKO HERRIA
ERRATZUKO KULTUR
ELKARTEA



BAZTANGO UDALA

ANTOLATZEN DU :



Alizia Izal

"TRANSEXUALITATE LEGEA ARRAS ABANGOARDISTA DA NAFARROAN, BAINA GARATZEKE DAGO"

Alizia Izal apaiza izandakoa (Atarrabia, 1959) munduan batetik bestera bizi izan da duela urte batzuk arte. Chiapastik bueltan, Lizarran finkatu zenean, betiko korapiloa askatzeari ekin zion: gizon gorputzean ezkutatzen zen emakumea azaleratzeari.



TESTUA ETA ARGAZKIA:
Koldo Azkune

Zer iritzi duzu transexualen eskubideak defendatzen dituen Nafarroako legeaz?

Kontu handiz eta egoera ongi ezagututa egindako legea da. Gure tratamenduak Osasunbidearen bitartez jarraitzea ahalbidetzen digu. Nafarroan Transexualitate eta Intersexuko Unitatea daukagu, beharrezkoa dugun laguntza psikologikoa eta endokrinologikoa errazten digu. Hormonatze botikak beraiek ematen dizkigute, eta ebakuntzak ere diruz laguntzen dizkigute, nahiz eta baginoplastia egiteko, adibidez, hiru urtez itxaron behar izaten dugun. Eta eskaera, gainera, 18 hilabeteko hormonatzea eta gero egin behar dugu. Laburbilduz, bost urtez zain egon behar dugu ebakuntza Malagan egiteko. Horregatik gutako batzuek medikuntza pribatura jotzen dute. Thailandian 8.000 euroren truke ebakuntza egiten dizute. Herrialde hori dugu ebakuntza mota horren paradisua, eta profesional onak dituzte. Diru munta hori, alta, bildu beharra dago. Bartzelonara ere joan zaitezke, klinika pribatura, eta 20.000 eurotik gora ordaindu. Lege horri esker izan ez balitz, nik ez nuen lortuko. Arras lege abangoardista da, baina oraindik garatzeke dago, onartu zenetik sei urte pasatu eta gero osasun-atala bakarrik jorratu baitute.

Nafarroan dagoen transexualen kopurua ezaguna al da?

Sekula ez da jakin ahal populazioaren zein portzentaje den transexuala. Gai tabua da, guztiz, oso ezkutua. Urtetan guk geuk benetako nortasunari uko egin diogu. Nik banekien zer zen gertatzen ari zitzaidana, baina ezin nuen onartu: zer esan behar zuten nire familian, nire inguruan? Komunikatzen ez den kontua da, erokeria, gizartearentzat arrisku-tsua den zerbait. Eta zure lanari eutsi nahi badiozu, zer esanik ez. Ni karrikaratu ninduten enpresako nagusiak ez zuelako nire transexualitatea onartzen. Transexualitate femeninoaz ari garela, mundu matxista honetan gizarteak ezin du onetsi gizona izatetik emakume izatera pasatu izana, alegia, "mailaz jaitsi" izana.

Zergatik ez zenuen erabakia lehenago hartu?

Oso nomada izan naiz. 20 urterekin Madrilera egin nuen, eta 23rekin Hego Amerikara. 1995ean Mexikoko poliziak eta militarrek atxilotu, desagerrarazi, eta handik kanporatu ninduten. Etxera itzuli eta, Chiapaskoa bor-bor zegoe-la, batetik bestera ibili nintzen. Handik denbora batera gelditzea erabaki nuen.



Apaiza izateari utzi nion, eta orduantxe hil ala biziko premia sortu zitzaidan: nintzen bezala bizitzea. Amerikan esaten zuten urgenteak ez diola garrantzitsua denari tokirik uzten. Eta nomada nintzenean garrantzitsuena hurrengo minutua zen, ni eta inguruan nituenak bizirik jarraitzea.

Nola sortu zen emakumea izateko azken erabakia?

Ikaragarritzko indarrarekin, kaxa baten barruan sartuta dagoen malgukia bezala, kaxa zabaldu eta bat-batean jauzi eginez irteten den horietarikoa. Transexualitate Unitateko lehenetariko bezeroa izan nintzen. Eta dena kasualitatez izan zen. Tiroide arazo bat izan nuen, eta nire medikuak endokrinologoaren gana joateko gomendatu zidan, eta bide batez, nire sexualitateaz nituen kezken berri emateko probestu nezala. Nik probidentzian sinesten dut, goiko indar batzuek bidean lagundu nautela. Tiroide arazoa azaldu behar, egoera horri aurre egin niezaion. Osterantzean, oinean mina hartu izan banu podologoarengana joko nuen... Prozesuari 2011n ekin nion, 2013an izena aldatu ahal izan nuen eta ofizialki emakume bezala agertu, eta horrela urratsak ematen jarraitu nuen.



Goizean esnatu eta ispiluaren aurrean emakume bat ikusten duzularik, zer sentitzen duzu?

Poza ematen dit, eta aurrera egiteko jarrrera hobea. Nahiko pertsona alaia izan naiz beti, baina bazen zerbait nire barruan gezurrezkoa zena, eta banekien. Orain hori ez dago. Osoagoa naiz. Ispiluari begiratu eta nire buruari esaten diot: "Emakume izatea lortu dut!". Zuk zer zaren jakin dezakezu, baina munduak zaren bezala onartzen ez bazaitu, ezin zara ongi bizi.

Apaiz izatea aukeratu zuen pertsona hartatik zer gelditu da?

Ez naiz gehiegi aldatu, eta nire ideiak ere ez. Espiritualitatea bizi dut, Eliza katolikoak gogaitu banau ere. Sinestuna naiz, baina ez praktikantea. Jaungoikoa-ekin dudana harremana axola zait, eta ez Elizarekin izan dezakedana.

Aita santuak zer pentsatuko du zutaz?

Berarekin hitz egitera joatea bururatu zait inoiz. Alabaina, pertsonak ataka konplikatuetan jartzea ez dut gogoko. Eta ez diot konplikatuegia duen aitasantutza gehiago zaildu nahi. Aukera izango banu honakoa esango nioke: Elizaren-tzat apaiza izaten jarraitzen dut, oraino

"Apaiza izateari utzi nion, eta orduantxe hil ala biziko premia sortu zitzaidan: nintzen bezala bizitzea".

ez didate dispentsarik eman. Gainera, emakumea naiz eta, are okerrago, nire bikotekidea ere emakumea da, lesbiana naiz beraz. Ea zein irtenbide ematen diogun honi!

Nola uste duzu hartuko zintuzketela Chiapasko chol indigenen komunitateetan?

Ez dut uste arazorik izango nukeenik. Ibili nintzen komunitateetan 'homosexualak' esaten zieten pertsonak bazeuden, edo 'diferenteak', baina ez zituzten mespretxatzen. Han, kasu, nesken taldetan ibiltzen zen gazte bat ezagutu nuen, eta han sexuen arteko banaketa oso nabarmena da eguneroko jardueretan. Bada, gazte hura emakumeekin hobe sentitzen zen, eta komunitateko zereginetan hobeki hartzen zuen parte. Onartzen zuten, ez zegoen inolako arazorik. Komunitateetara itzultzen banaiz, hasieran pixka bat kostatuko zaiela pentsatzen dut, baina onartuko naute. Ez dakit 'ladinoekin', indigenak ez direnekin, berdin gertatuko litzatekeen. ■

AZKEN NOMADA

Sabanillako (Chiapas, Mexiko) parro-kian apaiz lanetan zebilen, chol indigenen lurraldean, ejertzitoak eta poliziak beste bi apaiz atzerritarrekin batera atxilotu eta Mexikotik kanporatu zutenean, aferra politikoetan esku hartzea egotzita. Urte eta erdi lehenago, 1994ko urtarrilaren batean, komunikabideek Guatemalarekin muga egiten duen Mexikoko lurralde pobre horri erreparatu zioten, Ejertzito Zapatista hemen altxatua baitzen, Marcos komandante-ordea ikur ezagunena izan zuelarik.

Nafarroan berriz finkatu zelarik, Honduras eta El Salvadorren ere ibilitako apaiz nomada honen bizimodu-egonkortuz joan zen, eta Elizarekin lotzen zuen soka hautsi, harik eta "ikaragarritzko indar batekin" bizitzan edukitako kontraesanik handienak ez-tanda egin zion arte: emakume zen gizonaren gorputzean. Orain, Nafarroako Transexualitatearen Legeari esker, burua eta gorputza uztartzea lortu du eta Lizarrako Café con letras kultur-gune eta kafetegiaren kudeatzailea da. Alizia Izal du izena eta, goizero, ispilura begiratu eta zera esaten dio bere buruari: emakume izatea lortu dut!

"Aita santuarekin hitz egitera joatea bururatu zait inoiz. Alabaina, pertsonak ataka konplikatuetan jartzea ez dut gogoko"

"Chol indigenen komunitateetara itzultzen banaiz, hasieran pixka bat kostatuko zaiela pentsatzen dut, baina onartuko naute"

ZERGATIK ORDAINTZEN DUT HAINBESTE ARGINDARRAREN TRUKE?

2015eko uztailaren 1etik indarrean izan arren, iragan urritik aurrera hasi dira iristen argindarraren faktura berriak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko etxeetara. Fakturaren guztizkoa kalkulatzeko sistema da berrikuntza nagusia, baina iraganeko estetika eta lehengo gabezia bertsuek jarraitzen dute oinarrian: prezioen manipulazioa, gardentasunik eza eta fakturatutako kontzeptuen argitasun falta. Argiaren ordainagirian eragiten duten elementuak eta egoera iraultzeko alternatibak ditugu aztergai lerrootan.



Aitor Kaltzakorta
@Kaltzakorta

1997an hasi zuen Jose María Aznarren Gobernuak (PP) Espainiako Estatuako merkatu energetikoaren liberalizazioa, egun ustelkeria kasuek zanpatuta duten Rodrigo Rato Ekonomia ministro eta presidenteorde ohiaren eskutik. Prozesu horrek ez du etenik izan ordutik, eta kolore ezberdinetako gobernuak idatzi dituzte istorio lazgarri horren hurrengo kapituluak. “Lazgarri” diogu, merkatu energetiko espainiarraren oligopolioa osatzen duten korporazio handientzat zorion iturri izan arren herritarren patrikak odolustearen kronika delako, nagusiki.

“Tarifaren defizita” ezarri zuen Ratok, eta bere promesa izan zen tranparen lehen amua: “Hartuko ditugun neurriekin argindarraren ordainagiria ez da igoko KPlaren gainetik”. Finean, argindarraren kontsumitzaileak ez zituen ordaintzen horren kostu guztiak, eta estatuak hartzen zituen bere gain, zor modura, konpainia elektrikoei aurrerago ordaintzeko. Fakturaren atxikitze irrealera eragin zuen horrek, 2004az geroztik nabaritzen hasi zena. 2011rako 20.000 milioi euro ingurukoa zen Espainiako Estatuak argindar konpainia nagusiekin zuen zorra, 2015erako ia

bikoiztu egin dena. Hari horri tiraka ulertu daiteke 2003tik hona erreziboreen batez bestekoa %83,2 igo izana; %10etik gora azken lau urteotan.

Zerk puztu ditu hainbeste fakturak?


Kontsumitzaileak ordaintzen duenaren %35 inguru baino ez da kontsumitutako energiaren kostea. %21 zergak dira, eta geratzen den %44, gutxi gorabehera, ordainsariak. Aipatu ordainsarietan sartzen dira “extra penintsularrak” –Iberiar penintsulatik kanpoko espainiar lurraldeei ematen zaien ordainsaria–, 1997an onartutako “luzamendu nuklearra” –energia nuklearra aitzinatze inbertsioak bertan behera uzteagatik Unión Fenosari, Iberdrolari eta Endesari ematen zaien konpentsaziozko ordainsaria–, elektrizitatearen garraioa eta distribuzioa, enpresa industrial handiei egiten zaien tarifa berezia, energia berriztagarriak garatzeagatik ematen diren sariak –horien %80z gaindi jasotzen dituzte konpainia nagusiek– eta arestian aipatutako tarifaren defizita.

Horri gehitu behar zaio oro har herri-tarrek duten argindarraren kontsumo eredu. Izan ere, urte luzez zer ordaintzen den ez jakiteak inolako kontzien-

tziarik gabe kontratatzea bultzatu ditu erabiltzaileak: 102.259 megawatt dau-de kontratatuta Espainiako Estatuan, inoizko kontsumo handiena 45.450ekoa izan denean, 2007ko abenduaren 17an. Ez dirudi Euskal Herriko erabiltzaileen kontsumo eredu oso bestelakoa denik.

Sistema berriaren azpajokoa

Fakturaren guztizkoa kalkulatzeko sistema berriak orduko fakturazioan dauka berrikuntza nagusia, eta Balore Merkatuen Batzorde Nazionalak ezartzen duen PVPC (Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioa) tarifari atxiki zaizkion eta kontagailu elektronikoa duten erabiltzaileei eragingo die batez ere. Horietarik askok berau existitzen denik ere ez daki. Area-go, amarru bat dago kalkuluan. Izan ere, neurri hau onartu aurretik kontratatutako potentziaren eta kontsumitutako energiaren prezioak aldatu baitziren 2014ko abuztuan, Industria Ministerioaren bultzadaz. Hala, kontsumitutako energiari %11ko jaitsiera aplikatu zioten, baina kontratatutako potentziaren prezioak %63ko igoera jasan zuen. Erabiltzaileek apenas aurreztuko duten ezer, hortaz.



Argindarraren faktura interpretatzeko tailerra, iazko urrian Bilbon egindako Alternatiben Herrian.

Alternatiba berriak itzaletik argitara

Ekologistak Martxan elkarteko Marisa Castrok argindarraren fakturaren inguruko tailerrak ematen ditu. Argi dauka arazoa heziketa kontua ere badela: “Ez zaigu erakutsi beharrezkoa kontsumitzen. Kontrakoa, nahi adina gastatzera bultzatzen zaigu”.

Castrok ez du zalantzarik egiten alternatibak aipatzean: “Norbere kontsumoaren autogestiotik hasi. Konprobatu zer potentzia behar duzun eta ez ezazu gainetik kontratatu. Kudeatu zure kontsumoak, egin eskura duzuna. Hurrengo da oligopolioiko enpresetatik ihes egitea. Baina nora? Energia berdea saltzen duten enpresak daude. Hori berez ekologikoki oso ona da”.

Alta, urrats bat harago joatera animatzen ditu herritarrak: “Energia berriztagarrien kooperatiba batera joatea da beste aukera, Goiener edo Som Energia kasu. Erabakiak hartzeko garaian ahalmena izateaz aparte, horiek ziurtatzen dute energia berriztagarria dela. Azken hori bera Iberdrolak eskaintzen ditu, baina Iberdrolarekin kontratatzen baduzu, ez da inoiz ezer aldatuko. Guztiok energia nuklearrik edo ziklo konbinatuko zentralik erabiltzen ez duten kooperatiba batera bagoaz, aldiz, sistema aldatzeko gai izango gara. Kooperatiba bati edo konpainia handi bati erosteak ez du hainbesteko alde ekonomikorik. Benetako alde sortzen den kultura da. Kontsumoa kontzientea izatea”. ■

NOLA AURREZTU FAKTURAN?

Fakturaren aurrezteko bi kontzepturi erreparatu behar zaie batez ere: kontratatutako potentzia eta kontsumitutako energia. Hona norbere egungo konpainiari adio esan aurretik hartu daitezkeen hainbat neurri:

- Gizarte bonua eska daiteke kontratatutako potentzia hiru kilowatt baino baxuagoa bada –Espainiako Estatuko batez bestekoa 4,4 da–, familia ugaria izanez gero, edo 60 urte baino nagusiagoa izan zein gutxieneko erretiro-pentsioa kobratuz gero. Espainiar Gobernuaren erabakiz oligopolioiko konpainiek bakarrik eskain dezakete aukera hori.
- Kontratatu ahal duzun potentzia minimoa: kontsumo handia duten etxeko tresna guztiak aldi berean piztu ezin izatea eta horien erabilera kudeatzea dakartza, fakturan asko aurreztearekin batera.
- Temperatura egokia eduki etxean (20-21 °C). Jaisten den gradu bakoitzeko energiaren %8 aurrezten da.
- Izozkailuko izotza kendu.
- Luze piztuta egoten diren bonbillak kontsumo baxukoez edo LED argiez aldatu.
- Itzali *stand-by* dauden gailu guztiak, eta ez utzi kargadoreak entxufatuta ez badira ezer kargatzen ari.

» Zer ordaintzen den ez jakiteak kontzientziarik gabe kontratatuzera bultzatu ditu erabiltzaileak: 102.259 megawatt daude kontratatuta Espainiako Estatuan, inoizko kontsumo handiena 45.450ekoa izan denean

“PENA DA FEMINISMOA ETA EUSKALGINTZA ELKARTU EZ IZANA, EZ MUGIMENDUAK, EZ ADMINISTRAZIOAK”

Jone Miren Hernández antropologoak etengabe landu ditu feminismoa eta euskara, batzuetan elkarrengandik hurbil eta besteetan urrun, baina inoiz ez feminismoaren betaurrekorik gabe. Bere ustez, azken urteotan zerbait mugitzen hasi bada ere, euskararen ibilbideak lotura ahula izan du genero ikuspegiarekin.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Jone Miren Hernández García EHuko Gizarte antropologia irakaslea da. 2014ko udaberrian, Gasteizen, Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako eskolaren eskutik hitzaldia eskaini zuen: *Iraganetik etorkizunera euskararen bidetik, hausnarketa bat generoaren ikuspegitik*. Hitzaldi osoaren bideoa ARGIAko multimedia atalean aurki daiteke.

Ondoko lerroetan ordu eta erdiko hitzaldiaren pasarte bat jaso dugu. Hitzaldian zehar Hernándezek bere ibilbide akademikoari errepasoa egin dio, eta hizkuntzaren inguruan genero ikuspegitik egindako ahalegin apurrak kontatu ditu, hasi *Mujer vasca* liburutik eta ama hizkuntza kontzeptuaren esanahia aztertzeraino. Lerrootan hasierako hausnarketa orokorrak eta pasarte zehatz bat, emakume eta gizon kontalariena, jaso ditugu.

Jone Miren Hernández: “Ibilbide akademikoa egiten hasi nintzenetik beti izan ditut bi gai mahai gainean, feminismoa edo generoa eta hizkuntza. Ibilbide horretan boladak izan dira, batzuetan feminismoa jarri dut erdian eta beste batzuetan hizkuntzaren inguruan ibili naiz gehiago, beti ere generoaren betaurrekoak galdu gabe. Batzuetan zubiak sortu dira.

Bi ildo horien arteko lehen hurbilpena tesiaren inguruan izan zen. Tesia 1997an hasi nuen. Txepetxan [José María Sánchez Carrión] 1981eko testua eskuratu nuen. Ikerketa etnografikoan Nafarroako eremu bat hartu zuen eta euskarak zeukan egoera aztertu

zuen. Harrigarria izan zen, generoaren gaia nolabait erdigunean zegoen. Ordura arte, Euskal Herriari dagokionez, ez neukan halakorik ikusita. Euskarak izandako atzerapena aztertzen zuen, eta oso argi esaten zuen galera horren “errua” edo arrazoi indartsu bat behintzat euskararekiko emakumeek zuten jarrera zela. Inpaktua izan zen niretzat. Bere ustez, hori zen galera ulertzeko arrazoi nagusia. Psikologia eta hizkuntza nahasten zituen, nire ustez nahiko psikologikoak ziren ematen zituen arrazoiak, baina harrigarria izan zen.

Baina oso zaila izan zen testu horretatik abiatuta bestelako erreferentziak topatzea, non Sánchez Carriónek egiten zuen bezala aztertzen zen emakumeen papera euskararen garapenean. Munduan bestelako zein kasu zeuden ikusten saiatu nintzen. Ez zegoen asko garai hartan. Kasu batzuk aztertu nituen, baina ez nintzen ondorio batera iristeko gai izan. Ez zegoen adostasunik emakumeen paperaren inguruan.

Datu segregatuak apenas

Argi dago azken hamarkadetan euskararen inguruan sortutako kezka soziala, politikoa, akademikoa handitu dela, horren adibide dira egitasmoak eta ikerketak, datu dezente atera da ezagupenaz, erabileraz, motibazioaz... Baina egia esan, gutxitan izan ditugu datu segregatuak eta horrek ez du lagundu emakumeek eta gizonek euskarari buruz duten

jarrera irudikatzen. Azken urteetan joera handiagoa izan da datu segregatuak erakusteko, eta lagundu dit horrek.

Azken hamarkadetako produkzioa hartzen badugu ordea, genero aldagaia eta ikuspegi feminista apenas egon den. Oso gutxi izan dira ikerketak eta datuak, eta gainera egin diren lantxoak nahiko sakabanatuak denboran. Gehienak ez dira izan hausnarketa sakonak.

Harrigarria da, gizarte mugimenduetara jotzen badugu, feminismoak ibilbide luzea dauka, eta esango nuke euskararen inguruko gizarte mugimenduak ere badaukala ibilbide majoa, baina oso gutxitan topatu dira, oso gutxitan elkar-tu dira partekatzeke. Oso gutxitan diot, eta harrigarria da, gauza asko daukatzelako amankomunean. Tolosako Udalean berdintasun teknikari nintzenean gogoratzen naiz, harreman handiena Euskara Zerbitzukoekin neukan. Gure penak partekatzen ibiltzen ginen, eta beti esaten nien, ‘zuek ez kezkatu gu beti egongo gara zuek baino okerrago’.

Baina egia da feminismoaz ari garenean, euskararen arloan gaudenean, bazterketaz eta diskriminazioaz ari gara hitz egiten, balioaz ere bai. Paralelismo asko egin daitezke bi mundu horien artean. Pena da bi bide horiek ez elkartu izana, ez mugimenduak, ez administrazioak. Udaltopen [Udaletako Euskara Zerbitzuen topaketak] Mari Luz Esteban lankidea gonbidatu zuten eta horixe eskatu zioten, bi mundu horien artean



TXINTXARRILEUS

“Azken hamarkadetako euskarari buruzko lanak hartzen baditugu, genero aldagaia apenas egon den”

“Euskal kulturen gizonezkoen hitza aitortua eta goraipatua izan da, eta askotan, Joseba Zulaika antropologoak ere esaten du, gizona eta hitza sinonimotzat hartu dira”

zer nolako loturak dauden hausnartzea. Ahalegin hori egin zuen, eta argi geratu zen badagoela zer partekatu.

Transmisioaren ardura bai, prestigioa ez

Transmisioari buruz nahi nuen bereziki hitz egin, emakumea euskarari lotuta aipatua izan denean transmisore moduan izan baita aipatua. Gai horretan kontraesan interesgarria ikusten dut. Batetik, behin eta berriz azpimarratzen da hizkuntzaren ikuspegitik transmisioak daukan garrantzia, eta ardura hori emakumeen eskuetan uzten da edo utzi izan da. Bestetik ordea, emakumeak ez du izan protagonismorik. Transmisore papera aitortu zaio, paper horri garrantzia eman zaio, baina euskaren ikuspegitik garrantzi hori ez da azaleratu, antzeman, ez dauka isla argirik prestigioan, sormenean, boterean.

Onarpen gutxiko emakume kontalariak

Mujer vasca liburuan [Teresa del Valle]k zuzendutako ikerketa taldearen lana,

1985], kapitulu batean, euskal kulturen emakume eta gizon kontalarien papera nolakoa den aztertzen dute. Gaur egun gaitortuta dago hori, baina baditu gauza batzuk hausnartzeko interesgarriak. Emakume eta gizon kontalariak ezagutze desberdinak dituzte. Emakume kontalariak etxean eta etxe inguruan kokatzen dira, oso lotuta ipuinen eta esateren transmisioari. Normalean ez dute jasotzen onarpen edo saririk bere lana egiteagatik, gaitasun berezkoa, naturala, dutela uste da, eta beraz besterik gabe egiten dute. Gehienetan aisialdian aritzen dira eta familiako kideak biltzen dira. Kontalari anonimoak dira.

Gizon kontalariak ordea, normalean arlo publikoan jarduten dute, kalean edo plazan, nahiz eta batzuetan eremu pribatuetan, tabernetan edo sagardotegietan, aritu. Ezagunak dira, eta onartuak kontalari bezala, aitortzen zaie egiten dutena. Dohaintzat jotzen da, eta bereziki jendea dibertitzeko daukaten gaitasuna aitortzen zaie. Gehienetan gizon horien publikoak beste gizon batzuk izaten dira.

Bi mundu horietan protagonistek onarpen desberdina dute. Etxeko eremuan onarpena gertukoena izango da eta besteen kasuan onarpena askoz zabalagoa, publikoagoa da. Toki batean eta bestean hitzak ez du izango prestigio edo balio bera. Maialen Lujanbiok *Hitzetik hortzera*-n esandako hitzak etortzen zaizkit burura hau esanda. Emakumearen eta bertsoaren inguruan egin zen telebista programa hura. Lujanbiok esan zuen hasi zenean zaila izan zela sinestea berak bazuela zerbait interesgarria esateko. “Zeini interesatuko zaio nik esateko daukadana?” Eta berak nabarmen generoaren kontuarekin lotzen zuen, emakume izatearekin. Berak esaten zuen emakumearen hitzak ez daukala baliorik. Pentsatzen dut bertsoari batentzat drama bat dela hori. Egia da euskal kulturen gizonezkoen hitza aitortua eta goraipatua izan dela, eta askotan, Joseba Zulaika antropologoak ere esaten du, gizona eta hitza sinonimotzat hartu dira”. ■

BABESLEA: **HONDARRIBIKO UDALA**



Hondarribia
euskaraz bizi



INTEGRAZIO ETA ETXEBIZITZA ESKUBIDEAK BORROKA SOZIALAREN OINARRIAN

Laster beteko du hamarkada bat Italiako Parma hirian dagoen Artlab zentro sozialak. Urteak aurrera, Emilia Romagna eskualde italiarrean erreferente bihurtzen joan da gune okupatua, integrazio eta etxebizitza eskubideen aldarrikapenean.



Xuban Zubiria Elexpe

@xubanzubiria

ARGAZKIAK: ANOMALIAPARMA

Parmako ikasle batzuek euren ekintzak aurrera ateratzeko unibertsitatearen eraikin bat okupatu ostean hasi zen ibiltzen zentroa. Gaur egun, herritar-tasun ugari lagunak biltzen dituen komunitatea osatzen du Artlab-ek, baina hastapenetan, gazte ugari Parman bizitzeko zituzten arazoekin lotu zuten okupazio proiektua. Unibertsitate tasa altuek, langabeziak eta prekarietateak gogor kolpatzen zituzten gazteek alternatiba sendoa eraikitzeari ekin zioten. Egoerari soluzio berriak eraikitze bidean, berehala ohartu ziren sistemen kontraesanek beste komunitate bat zigortzen zutela bete-betean: etorkinak. Gainera, instituzioek horiei bideratutako prestazioak murrizten ari dira, hirian migratzaileak gero eta gehiago direnean.

Italiara migratutakoek bizi duten arazoa Parmako beste arazo sistematiko bat bezala lantzeari ekin zioten zentro sozialean, egoerari modu globalean erantzun behar zioten bertatik bultzatutako proiektuek. Geroztik, migratzaileen eskubideen aldeko iniziatibetan oso aktiboki hartu dute parte, tartean Lampedusako Gutunaren eraketan eta migratzaile eta errefuxiatuenganako elkartasun karabanetan. Parmako egoera aldatu nahian, jatorri anitzetako komunitateen elkarrekin harremanetan jarri dira eta gune okupatuaren ateak ireki dizkiete, denek har dezaten parte egitasmoan.

» Nazioarteko ikuspegia daukan baina alternatiba lokalak eraikitzen diharduen tresna eta familia bihurtu da Artlab, eta Gobernuaren ezintasunaren aurrean errefuxiatu askoren aterabide bihurtu da

» Gune autogestionatuak integrazioa eta borroka soziala Parmako biztanleen egunerokoan txertatzea lortu du eta Salbini ultraeskuindarra buru duen oldarraldi xenofoboari aurre egiteko baliabide bikaina da

Errefuxiatuen krisi globalak eragin nabaria izan du Italian, eta ondorioz, baita Artlaben egungo jardueran ere. Matteo Renziaren Gobernuaren ezintasuna ikusirik, Artlab eta beste zentro okupatu italiarrak, Gobernuak babestu ezin dituen errefuxiatu askoren aterabide bihurtu dira azken hilabete hauetan. Errefuxiatuen etorrera bideratzeko Italiako gobernu kanpoko beste hainbat erakunde eta eragilerekin batera *Stop war not people* kanpaina jarri dute martxan. Krisia gestioatzeko instituzioak izaten ari diren hutsuneak betetzeko sortu da ekimena.

Nazioarteko ikuspegia daukan baina alternatiba lokalak eraikitzen eta hiri italiarra eraldatzen diharduen tresna eta familia bihurtu da Artlab. Izaera ugaritako gero eta iniziatiba inklusibo gehiago eskaintzen dizkio elkarte autonomoak Parmako hiriri.

Italiera eta arabiera eskolak

Elkarteko militante asko ikasleak dira eta asteen bitan irakasle bihurtzen dira: italiara eskolak ematen dituzte. Eskolak doakoak dira eta maila ezberdinak daude. Hasiberrientzako maila dago, Parmara etorri berri direnentzat. Hizkuntza hobeto menperatzeko bigarren maila bat ere badago. Duela bi urtetik hona, egitasmoa arrakasta handia izaten ari dela aitortu digute irakasle lanean ari diren gazteek. Trukean, italiara ikasten duten hainbat migratzailek arabiera klaseak eskaintzen dituzte.



Goiko irudian, Artlab eta beste hainbat eragile, etxebizitza duina aldarrikatzeko mobilizazio batean, Parman. Eskuinean, La Paz futbol taldea. Kultura ezberdinen arteko elkarbizitza indartzeko tresnatzat darabilte futbola partaideek.

Futbol talde anti-arrazista

Arrazakeriaren aurkako La Paz futbol taldea eratu dute zentro sozialeko kide batzuek, beste hainbat errefuxiatu eta migratzaileraren laguntzarekin. Italiako maila erregionalean jokatzen du taldeak, eta emaitzetatik harago, futbola kultura ezberdinen arteko elkarbizitza indartzeko tresnatzat darabilte partaideek.

Etxebizitza, denon eskubidea

Hirian alokairua ezin ordaindurik eta etxe-gabetzea sufritzeko arriskuan dauden familia eta ikasle prekarioentzat unibertsitateak abandonatuta zeukan beste eraikin bat eraberritu du elkar-teak. Eraikinaren gestioak sortzen dituen gastuak ordaintzeko, alokairu sinboliko bat ordaintzen dute bizilagunek. *Nomas* izena hartu duen eraikinean auzolanean bizi dira ikasle, migratzaile eta familiak.



Artlab gune autogestionatuak integrazioa eta borroka soziala Parmako biztanleen egunerokoan txertatzea lortu du eta Salbini ultraeskuindarra buru duen oldarraldi xenofoboari aurre egiteko baliabide bikain bihurtu da. Txiki-

tik eraikiz, norbanakoen bizi-baldintzak hobetzeko tresna da, finean. Eta errefuxiatuen krisiarekin trabatuta dagoen Europa honetan, instituzioetatik harago soluzio lokalak aukera ona direla erakutsi dute. ■

Igebeler nano bat



Jakoba Errekondo

Kaixo, Richmond upon Thamesetik idazten dizut. Urteak daramatzat bertan polizia lanetan. Londres Handiaren barrutiko hiri bat da hau, eta kanpotar asko erakartzen dituen gauza ugari badugu ere, ezagutzeko moduko pare bat erakutsi nahi dizut: Kneeller Hall musika eskola, britainiar armada-erentzat baizik ez den eskola aparta –gure semea bertan ari da soldadu, gaitajole onena izateko trebatzen–, eta Kew Gardens errege baratze botaniko ikusgarria. Beste zienta bat parke eta lore baratze badira gure hirian, baina Kewko hau da ospetsuena, mundu osoan ezaguna. UNESCOk gizateriaren ondare izendatutako 360 goldeko saila da eta, zaintzaile eta ikerlari, 700 lagunek baino gehiagok lan egiten dute bertan. Mundu osoko milaka eta milaka landare espezie jagoten dituzte bertan: jaso, erein, zaindu, ugaltu... Laborategiak, hazi bildumak, herbarioak, liburutegiak, kontinente guztietako bateko eta besteko mikroklima ugarien antzerakoak dituzten berotegiak eta negutegiak... edozein botanikariren in-



Kew Gardenseko igebelarra (*Nymphaea thermarum*).

DEROR AVI-CC BY SA

bidia dira bertan ari direnak. Mundu guztiko espezie arraroenak ekartzen saiatzen dira, espezieak jasotzeko eta ikertzeko. Bertako bilduma ikusgarria da, eta etengabe haziz doa. Adibidez, bertako herbarioko orrietan sikatuta daude ia zazpi milioi landareren laginak... Horietako multzo zabalea tropikoetatik dator. Tartean baita Ruandako sortutakoak ere; gure semea bertara turista joatearen zalea da.

Herbarioak sikatu eta fosilizatutako ale batzuk bai, baina baita bizirik daudenak ere. *Nymphaea thermarum* igebelarra da horietako bat. Igebeler hori nanoa da, hostoak zentimetro bete eskasekoak ditu. Eberhard Fischer botanikari alemanak aurkitu zuen 1987an, Ruandako hego-mendebaldeko Mashyuzan. Fische-

rrek Bonneko baratze botanikora eraman zuen; truke bat medio Alemaniatik gure Kew dotorerara ekarri zuten 2009an. Orain 30 bat ale daude bertan.

Gaur egun, Mashyuzako gune hezeak abailan lehortzen ari dira, turistentzat antolatatu beharreko zerbitzuak medio. Eta igebelar nanoa desagertu egin da. Kew Gardenseko arduradunak beren esku dute Ruandako aberastasuna osatzea, libra esterlina milioi batzuk gora behera. Baina negozioa kolokan ikusi dute. Kew Gardensen igebelar ale bat desagertu egin omen da, lapurtu egin zuten duela bi urte urtarrilaren 9an, goizeko 8:30 eta arratsaldeko 14:55 artean. Lapurreta argitzeko inolako arrastorik duenak dei beza gure polizia-etxera: 44. 2087215934. ■



Beldurrari muga

Gero eta material modernoagoak ikusten dira baratzeetan. Udaberrian azak jateko asmoz, neguan aldatu ditu baratzezain honek. Landaretxo guri-guriak pagotxa dira barraskilo eta bareentzat, jaki samurra. Baina plastikozko tutu izurtuak, bost litroko ur-botilak... Dena egokia da gasteropodo gosetiei landaretxotik urrun eusteko. Itsatsi eta indar pixka bat hartu artean, behinik behin. Era berean, haize zakarretatik eta eguraldiaren trakeskerietatik babestuko du.

Paisaia lan bikainak egiten ditu jendeak. Zer da ba baratzezaintza, artea ez bada?

ARGAZKIA: JAKOBA ERREKONDO

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea · [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)



LURSAGARRA



KOMIKILARIAK ERREKONDOREN KONTSULTAN

Ez dakit noiz abiatu zen Lurretik Ilar-girako zuen espedizioa, baina hemen, aspalditik, lursagarrari patata deitzen zaio. Mokofinen bat edo bestek lursagar ere deitzen dio, baina nire iritziz oker. Nahiz eta landareari kentzen diogun fruitua izan, patata ez da fruitu bat. Fruitua balitz helburu lurgoran erein behar-ko litzateke, baina sustraia etako erreser-ba izaki, lurbeheran ereingo nuke nik.

Patata fruitua ez denez, ezin taxuzko ardorik egin berarekin. Baina erreser-ba denez edari bizi eta uxuala ederrak egiteko gai egokia da. Bodka gehienak, adibidez, patataz egiten dira. Hor dugu, urrutira gabe, Araban egiten den Bas-moon bodka sonatua. Izan ere patata lurpeko altxorra da. Patata, Arabatik Ilargira. Bodkari emanez, edonora...

Jakoba Errekondo

AURKEZPEN HITZALDIAK

Hauek dira ondorengo hitzorduek:

Urtarrilak 15

Ataun (Aia)

Haitzarri elkarte, 19:00etan.

Urtarrilak 20

Bilbo

Kafe Antzokian, 10:30ean eta
19:00etan.

Urtarrilak 27

Atxondo

Eskolan, 18:00etan.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar
duzun informazioa eskuratuko duzu

sustapena@argia.com

☎ 943 371 545

Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIA erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzurekin jaso dezakezu liburua. Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusi goiko zutabearen non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak:

943 371 545

www.argia.eus/denda · denda@argia.eus

**Zure saltokian salgai jartzeko,
jarri harremanetan gurekin.**

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

GAIKAKO ZABOR BILKETA ERROMAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Erroma, K.a. 600. Tradizioaren arabera, Tarkinio I.a erregearen aginduz, ingeniari etruriarrak *Cloaca Maxima* eraikitzen hasi ziren, mendetan hiria garbixeago mantenduko zuen estolderia sistema.

Eta hala ere, Erroma oso hiri zikina zen. Etxeetako zaborra, animalien gortzak eta gorpuzkiak, eta orotariko hondakinak kaleetan pilatzen ziren. *Stercorari* edo zabor biltzaileak hirian barrena ibiltzen ziren, zaborra gurdietan bildu eta *puticulum* edo kanpoaldeko zabor-tegietara garraiatzeko. Zenbaitetan txerriak eramaten zituzten laguntzaile, hondakin organikoak birzikla zituzten. Baina ahalegin horiek ez ziren nahikoak hiri gainpopulatuko biztanleen ohitura antihigienikoei aurre egiteko.

“*Cacator sic valeas ut tu hoc locum transeas*”, dio Ponpeian aurkitutako grafiti batek; mesedez, kaka beste toki batean egiteko, alegia. Baina aholkuari jarraituz eginkariak etxe barruan egitea ere ez zen oso lagungarri, gero leihotik kalera botatzen bazituzten. Eta pioxontzi gisa erabiltzen zuten murkoarekin inor jotzen ez bazuten, gaitz erdi. Edukiarekin batera edukiontzia nahi gabe jaurtitzea ohikoa izango zen, legeriak berariaz jaso baitzuen: ontziak norbait zaurituz gero, jaurtitzaileak ordainduko zituen zauriak sendatzeko gastu me-



Mendetan Testaccio mendia osatuz joan ziren milioika anforetako batzuk.

SHELLY MARTIN

dikuak eta kaltetuak lanik egin gabeko egunen soldata.

Hondakinen gaikako kudeaketaz ez ziren txerriak soilik arduratu. Tiber ibaiaren bazterrean dagoen Testaccio mendia da horren froga erraldoia. Muino artifizialak 50 metroko altuera eta 22.000 metro koadroko oinarria ditu, eta 25 milioi anforaren hondakinez osatuta dago. Anforak hainbat mendetan, pixkanaka eta modu egituratuan ipinita jaso zuten mendixka egonkorra. Terra-kotazko ontziak oliba olio eta beste elikagai batzuk garraiatzeko erabiltzen zituzten. Ontzietan bertan egindako

idazkunei esker dakigu Testaccioko gehienak Afrikako kostaldetik eta Beticatik, egungo Andaluziatik, zetozela. Tiberreko portura iristean, anforak hustu eta ez zituzten berriro garraiorako erabiltzen; ontziak ondo garbitzea ez zen errentagarria eta osasunerako ere ez zen batere segurua, anforak barrutik ez baitzeuden esmalteztatuta. Gutxi batzuk eraikuntzan berrerabili zituzten, baina gehienak kontu handiz pilatu eta karez estali zituzten, hondakin organikoak usteltzearen kiratsa saihesteko eta Inperioko hiriburu zikina gehiago ez zikintzeko. ■



UNIVERSAL

Laurence Olivier 'Hamlet' (1948) filmean, printze daniarraren rolean, Yorick-en garezurra eskuan duela.

Garezurra eskuan izan ala ez izan

Hamletek “izan ala ez izan” dioenean, hirugarren ekitaldiko lehen eszenan, printze daniarra bere gazteluan dago, eta ez du garezurrik eskutan. Garezurraren pasartea bosgarren ekitaldiko lehen eszenakoa da. Hamlet hilerri batean dago, gorteko bufoi eta txikitako lagun Yorick-en burezurra eskuan, eta heriotzaz zein denboraren joanaz hausnartzen

du, lagunaren bertuteak gogoratzeaz batera. Obraren irudi indartsuenetakoa izanik, Hamlet maiz garezurrarekin irudikatu izan da koadro eta karteletan.

Beraz, pasartean artean bi ekitaldi osoko aldea dago. Baina denboraren poderioz, Hamleten esaldi ezagunenak eta irudi zabalduenak bat egin dute imajinario kolektiboan. ■

DISEINU ALDAKETA WEBGUNEKO ALBISTEETAN

Zuzeneko jarraipenak egiteko prest



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Internetak, garai batekoak eta gaurkoak, ia izenean soilik dute antzik. Ez natzaizu gehiegi luzatuko gaur egungo bizimoduaren abiadura azaltzen, irakurle, ondo ezagutuko baituzu. Baina sare sozialek eta momentuko informazioak, zuzenekoak azken urteetan hartu duten protagonismoak aldaketa batzuetara eramane dute ARGIA ere. Zein ez da inoiz sare sozialetan zabalduetako edo lagunen batek emailaz, whatsappaz pasatuko lotura batetik zuzenean hedabide bateko artikulu jakin batera sartu?

Web orri nagusietara zuzenean sartzeko joera behera doa, eta albiste zehatzetarako loturak doaz gora. Beraz, gaurko erronka testu konkretu horretatik jendeak webguneko beste albiste batzuetara jo dezan lortzea da. Horregatik Interneten zintzilikatutako artikulu, erreportaje eta albisteen aurpegi-berritzea. Gaiari lotutako beste zenbait artikulu gomendagarri eskainiko dira irakurritako albistean bertan, eta azken urteetan ARGIA gaikako kanalak osatuz joateko ahalegina hemen ere ikusiko da. Dena gailu guztietara gaituta eta diseinu berrituarekin.

Liveblogging, zuzeneko jarraipenak

Zuzeneko jarraipenak ARGIAtik. Eta esango duzu, hori zer berrikuntza da? Hori lehen ere egiten zen... Baina ez ARGIA bertan, ARGIAren zerbitzarian gordez informazioa. Honetan ere sare sozialek pusketa jan digute. Momentuko jarraipenak egiteko jotzen dugu normalean Twitterrera, eta bertan aukeratzen dugu zein traola edo zein hedabideren bidez ezagutu nahi dugun berria. Eta hedabideok ere jokoan sartu gara. Gure webbean orain arte gehienez ere *Storify* bat sartu dugu (Twitterren traola bati lotuta jartzen ari direnak irakurritz joan ahal izateko) eta jasotzen goazen infor-



mazioarekin albiste bat osatuz joan izan gara. Baina zuzeneko informazioa sare sozialen zerbitzarietan biltzen dugu, eta noizbait hori galduz gero, akabo egindako lana. *Liveblogging* teknikak ARGIAren webgunean bertan, albisteak zuzeneko jarraipenak egiteko prest izatea esan nahi du. Informazioa norberaren datu baseetan gordez, zuzeneko jarraipen zabala egiteko aukera ematen du. Munduko hedabide nagusiek hartu duten joera da hau. Sare sozialetan zuzeneko informazioa zabaltzen jarraituko du ARGIAk, baina webgunea ere prest izanez halako gertaerak era eroso eta erakargarrian jarraitzeko. ■

“ARGIA arnasgune bat da”

Harpidedun bat,
Trantsizioak erakusketan
(Hernanin) idatzirik iruzkina

ARGIA berrituaz iritzia

Aspaldian aldizkariari buruzko oharrek bidali nahi nitzizuela, eta azkenean gaur! 4 bat aldizkari ikusi eta gero hauxe inpresioa:

- Blokeak hobeto antolatuta daudela iruitzen zait, gustatu zait lehen zatiak aktualitateko kontuak aztertzea panoraman eta gero gainerakoak.
- Hasierako atal horretan ez zaizkit asko gustatzen alboetako berri laburrak (bideoen aipamenak...), hain estu eta labur jarrita ez dute ia argibiderik ematen.
- Hurrengo atalak ondo, elkarrizketa eta erreportajeak neurrikoak, beti kontu interesgarriak tartean.
- Iritzien atala, ohikoak eta kulturako kritikak ere ondo. Telegramari ez diot zentzu handirik ikusten, hasierako berri laburrak bezala, informazio hain gutxi emanda pobretxo geratzen da.
- Beranduegi “berpiztea” ona! Sare sozialetarako amu politik dira, eta ederra litzateke hilean behin bada ere bideotxo bat ateratzea, lehengo tankerakoa!
- Azkenerako utzi dut ohar garrantzitsu bat: irudipena dut, azken aldaketekin, Euskal Herriak eta euskal kulturak pisua galduta ote duten, eta beste gai batzuek irabazi: nazioarteko kontuek, mundu mailako arazoek, kanpoko adituek... Azaletan eta azken hilabeteetan landutako gai nagusietan horixe iruditu zait. Nik, aukeran, balantza pixka bat “geurera” ekartzea eskertuko nuke, eta kulturari beste begi batzuekin erreparatzen jarraitzea, ahal bada maizago.
- Postu bikaina jarri zenuten Durangon! Eskerrik asko egiten duzen lanagatik, eta hurren arte.

Xabier Azkue, ARGIAkoa

Eskerrik asko Azkue, oso kontuan hartuko ditugu zuk esanak. Eman zuk ere ARGIA berrituaz zure iritzia:

- Sare sozialetan #argiaerberritua traola erabilita.
- emailaz harpide@argia.eus-era idatzita.

Beñat Gaztelumendi Arandia

“EZ ZAIT GUSTATZEN BERTSOLARITZA BESTE KULTUR JARDUERENTZAT EREDUGARRITZAT SALTZEA”

Oraindik ez da aparretatik jaitsi, goizegi da Gipuzkoako txapeldun berri izateak zertan eragin dion tentuz aztertzeko. Hori jakinda, finalaz ahalik eta gutxien eta bertsolaritzaz ahalik eta gehien hitz egiten saiatu gara. Atera diren gaiak: belaunaldi berria, kolektibotasuna edota bertsolarien inertziak, besteak beste.



Kepa Matxain Iztueta

@kmatxain

ARGAZKIA: DANI BLANCO

“Ajearekin erantzun zitian finalari buruzko galderak. Gutxienez burua argi duela erantzun ditzala finalaren ajeari buruzkoak”. Inesen ahotsa mintzo zitzaidan, ohi bezala, aholkuaren eta sermoia- ren arteko marra fin horretatik. “Hobe- to pentsatuta, galde iezaioek edozertaz finalaz izan ezik. Eraman ezak gustu- ra sentituko den toki batera, Añorgako mendialde horretan bazaudek makina bat. Zergatik ez duk probatzen, adibidez, Lukainkategi erretegiarekin? Bere jaio- tetxetik 50 metro eskasera zagok, eta badakik zer, lehengoan Jakoba Errekon- do topatu nian bertan. Hura joaten bada toki ona izango duk, ziur. Ba al dakik nondik datorren Lukainkategi izena? Is- torio polita duk. Ostiral Santu batez ber- tako Praxku *in fraganti* harrapatu omen zitean lukainka puska bat jaten, eta ge- roztik...”. Gauza gutxi dago belarri-er-

tzeko marmar etengabea baino gogai- karriagorik. Isiltzeko, otoi, agindu nion Inesi, baina ez zegoen Inesik inguruan. Haren orde, Beñat Gaztelumendi eta grabagailu piztu bat neuzkan aurrean, lehenengo galdera noiz egingo zain.

Munduari kantatzeko zure tokia topatu omen duzu txapelketa honetan. Ahots propioa. Nola lortzen du hori bertsolari batek?

Bertoak bi ezaugarri ditu: teknika –neu- rriz eta errimaz osatua– eta hor barruan sartzen duzun edukia. Lotuta dauden arren, bi lanketa desberdin dira. Teknika denok antzera ikasten dugu bertso-es- kolan: errima zerrendak eginez, doinuak landuz... Beti egongo dira bertsolari tek- nikoagoak, baina txapelketan gabiltzan guztiok daukagu esan nahi duguna esa- teko gutxiengo teknika. Auzia da teknika





hori zertarako erabiltzen duzun. Bertsoa da esan nahi duzun hori esaten saiatzea, jakinda ez duzula inoiz lortuko, tekniko-ki ez zarelako iritsiko, aukeratzen dituzun hitzek ez dutelako esango justu zuk buruan zeneukana, hitzek beren pisu ideologiko propioa dutelako. Txapelketan saiatu naiz une honetan mundua ikusteko daukadan posiziotik kantatzen, esan nahi nuen horretatik ahalik eta hurbilen. Saiatu naiz gaiei ertzak bilatzen, pertsonaien larruan sartzen, ahalik eta bertso errealistenak osatzen, apaingarririk gabeak. Zeure buruarekin etengabe borrokan aritzea da bertsoa, eta, normalean, zuk galtzen duzu.

Badago, orduan, esan nahi duzunari buruzko aurre gogoeta bat. Bertsolaria igaro al da modu intuitiboago batean kantatzetik modu premeditatuago batean kantatzera?

Zer esan nahi dudan baino gehiago da nondik esan nahi dudan. Ahalik eta garbien edukitzea munduan non gauden kokatuta, nondik ari garen hitz egiten. Bertsotan hastean ez dut pentsatzen “mezu hau bota nahi dut”. Bertsolariek oro har ez dute hori egiten, eta, egingo balute, ez litzateke ona. Egia da bertso-kera aldatzen ari dela: lehen bukaerak gehiago kargatzen ziren, arrazoi absolutuagoak kantatzeko joera zegoen. Orain, diskurtso potolo bat bota beharrean, diskurtso horren ertzak bilatzera jotzen da, arrazoi maiestatikoak albora utzita. Inertziek hor jarraitzen dute, noski, eta are indartsuagoak dira txapelketan: hainbeste lagun aurrean edukitzeak nahi gabe eramaten zaitu arrazoi zabalak botatzera, ahal den jende gehien kabitzeke. Baina arrazoi zabal horien ertzak bilatzean ari naiz benetan ondo. Hori da gutxitan lortzen dudana, eta benetan egin nahiko nukeena.

Aipatu dituzun ezaugarriak orokortu al daitezke, gutxi asko, zure belaunaldira?

Belaunaldi berriak nola kantatzen duen ez dakit. Agin Laburuk modu batera, Alaia Martinek beste era batera... Kritiketara aipatu zen Alaiak eta biok antzerira heldu geniola kartzelakoari, eta izan daiteke, baina plazan nabaritzen dira desberdintasunak. Belaunaldiez aritzea baino interesgarriagoa da bakoitzak bere ekarpena egitea, barrura begiratuz eta bertsolaritza ikusteko leku desberdin bat topatuz.

Bertsolariaren ikuspuntutik bai, ziur asko, baina kritikariarenetik joera orokorreki erreparatzea da benetan interesgarria. Kasu isolatuetan oinarrituta zaila da kritikarako elementuak sortzen.

Bai, eta Gipuzkoako Txapelketa honek eman ditu irakurketa globalagoak: adibidez, ia ez zaio kantatu euskal gatazkari, presoak ez dira ia aipatu ere egin. Tematika aldatu da, batetik, jarri diren gaiek oso gutxitan ukitu dutelako hori, eta, bestetik, gai irekietan –kartzelakoe-tan, esaterako–, bertsolariari hautatzea egokitu zaionean, ez duelako hortik jo. Aldiz, asko kantatu zaie bikote harremanei, familia barrukoei, lagun artekoei... Ez da bertsolaritzaren kontua bakarrik, gizartea aldatu da.

Belaunaldien arteko harremana ulertzeko modua –zaharrek gazteei lekukoa pasatzea, mugimenduaren jarraikotasuna azpimarratzea– eta horrek berarekin dakarren kultur teorizazioa –transmisioaren ideia, eta abar– oso zabaldua eta konpartitua da bertsolaritzan. Euskal kulturgintzako eredu apropos bezala jarri ohi da maiz. Iruditzen zaizu beste kultur diziplinetara esportagarria dela?

Diziplina bakoitzak du bere kodea. Bertsolaritzaren kodea oso aproposa da transmisio horretarako, sorkuntza prozesua bera elkarbanatzen dugulako: belaunaldi eta mundu ikuskera oso desberdineko jendea gabiltza oholtza berean, eta behartuta gaude denon artean saioak eraikitzen. Bestalde, bertsolaritza ezin da beste hizkuntza batean egin, euskaraz izan behar du derrigor, eta horrek ere asko errazten du. Bertsolaritza eredu-tzat jartze hori ez dut uste guregandik datorrenik, nik behintzat ez dut horrela bizi. Are gehiago, ez zait gustatzen bertsolaritza kultur eredu esportagarritzat saltzen denean, ez zaidalako iruditzen hala behar lukeenik. Diziplina bakoitzak bere erara funtzionatu behar luke, bere kodeen arabera, bere beharren arabera. Uste dut diziplinen arteko zubi gehiago eraiki behar genituzkeela, eta horretarako ez da ona inor eredu bezala jartzea.

Finalaren osteko elkarrizketetan asko azpimarratu duzu bertsolaritzaren balio kolektiboa, beti konnotazio positiboz. Bururatzen zaizu kolektibotasun horrek izan dezakeen arriskurik?

Kolektibo izateak badu arriskua politikoki zuzenera erortzekoa, edo mugi-

mendua jartzekoa sortzaile bezala izan ditzakezun asmoen gainetik. Dena dela, kolektibotasuna eta norberekotasuna lotuta doaz beti. Bertsoa ez da kolektiboa bakarrik. Nik, adibidez, oso intimoki bizi dut bertsoa, nire esperientziei oso lotua. Baina bertsolaritza zerbait pertsonal bezala ulertzea ere ez da zuzena, hankamotz geratzen da mugimendurik gabe. Ilunben 7.000 lagun hunkitzen direnean, ez dira soilik hunkitzen entzun duten bertsoa barruraino iritsi zaielako, baita ere seguru asko lau urtean ez dutelako aukerarik izan halako nukleo batean biltzeko, euskara hutsezko ekitaldi batean. Ezin dira bi gauzak bereizi. Bertsogintza ezin da ulertu bertsolaritza gabe.

Bertso batek, ona izateko, besteak beste entzulearengana iritsi behar duela esan izan duzu. Entzulearengana iristeko modu asko daude, ordea, eta horietako bat izan daiteke hura deseroso sentiaraztea, bere balioak eta usteak zalantzan jartzen saiatzea. Irudipena daukat ez dela hainbestetan hartzen bide hori.

Batzuetan zaila da barruko inertziei aurre egitea. Bertso on batek erabaki hori du barnean, ea bertsolaria gai izan den aukeratzeko publikoak eroso entzungo duen zerbait kantatu nahi duen ala zerbait deserosoa. Erabaki hori inertziaz hartzen denean nabarmen gelditzen da. Bururatzen zaizkit, hala ere, une deserosoen adibide batzuk: 1997an, Donos-



tiako Belodromoan, Jon Maiari eta Unai Iturriagari jarri zieten gai bat, gutxi gorabehera zioena: “Zuek bi neska zarete, orain arte oso lagunak. Orain, ohartu zarete lagunak baino zerbait gehiago zaretela”. Gaia entzundakoan publikoa

barrez hasi zen. Jon Maiak lehen bertsoa bukatu zuen esanez “ez dut ulertzen zergatik ari zareten denok barrez”. Badago hor bide bat bertsolaritzarentzat: kilimak eragiten saiatzea, eraikitako ideia batzuk kolokan jartzen saiatzea.


Ahalegindu behar genuke horretan, beti ere kontuan edukita gaia entzun eta hamar segundotara hasi beharra dagoela kantuan. Baina badaude kasu gehiago. Ez dut uste, adibidez, Maialen Lujanbiok BECen gauza erosoak kantatu zituenik gai gehienetan.

“Bertso on batek erabaki hori du barnean, ea bertsolaria gai izan den aukeratzeko publikoak eroso entzungo duen zerbait kantatu nahi duen ala zerbait deserosoa”

Ziur asko azken urteotan ahots deseroso nabarmenenak feminismotik etorri dira. Haiek ausartu dira komunitate baten balioak hankaz gora jartzen, asko oso deseroso sentiaraziz.

Bai. Gauza asko daude birpentsatzeko: adibidez, gizonok tratatu txarrei buruz kantatzen dugunean emakumearen larritik egin ohi dugu beti. Beti gizonetik kantatzen dugu, eta emakumetik aritzea justu biktima garenean, “emakumea” eta “biktima” lotuz, arriskutsua iruditzen zait. Kartzelako batean, interesgarria litzateke gizon batek tratatu txar emaile baten paperetik kantatzea. Nola pasa zara kolpetik halako zerbait egitera? Botere harreman hori nola eraiki duzu? Noski, hori hiru bertsotan azaltzeko oso ona izan behar duzu –Unai Iturriagak egin zuen BECen 2009an–. Hor espektro handi bat zabaltzen da kantatzeko. Bidea urratzeko, ordea, zeure buruarekin oso seguru egon behar duzu. Zalantzak baldin badituzu ea gai izango zaren hiru bertsotan hori egiteko, zaila da hortik jotzea. Balio handiko ahalegina litzateke, baina jaialdi batean egiteko errazagoa. Jaialdietan aurpegiak ikusten dituzu, badakizu noraino jarrai dezakezun tenkatze horretan. Txapelketako hasierako sentsazioa beldurra izaten da, ez erortzen saiatzea, eta hortik zaila da deserosotasuna bilatzea. Baina badaukat gogoia saiatzeko. Segurtasun hori bilatu nahi nuke. ■





PROSA APROPOSA GUREA?

Euskaraz hala moduz idazteko joera orokortzen ari ote den, horra galdera potoloa. Jo dezagun erantzuna baiezkoa dela: zergatik ari da gertatzen? Zein da horren erantzule? Testuak maite dituzten bi lagun elkartu ditugu gaiaren bueltan, Irene Arrarats eta Joxerra Garzia.



Lander Arretxea

@Lander Arretxea

Nola hasi behar nuke testu hau idazten? Nori zuzentzen natzaio? Zein ote da adierazi nahi dudana hori haiek ongi ulertzeko modu aproposena? Horiek dira, inoiz baino modu kontzienteagoan, ordenagailuaren parean eseri eta burura etorri zaizkigun galderak. Ariketa hori egin eta erantzunekin asmatzen bada, orduan izango da idazteko modu bat eraginkor eta kalitatezko. Galdera horiei aurre egin gabe ordea, nabarmena da arriskua: ideiak aurrez ikasi edo barneratutako esaldi eta egituretan txertatzea, formari ia erreparatu gabe.

Bigarren joera hori nahikoa zabaldua dagoelakoan, zergatik gertatzen den eta inertziatzko idazketa horretan zein prosa mota nagusitzen den jakin nahiak eraman gaitu idatzizko komunikazioan aritu eta aditu diren Irene Arrarats eta Joxerra Garziarengana.

“Badago prosa mota bat oso zabaldua, berez tradizioko prosarekin zerikusi handirik gabea: ez du idazle klasikoen antzik, ez Auspoko herri idazleen antzik, eta ez ahozkoaren tankerarik ere”. Hala dio Irene Arrarats *Berria* egunkariko zuzentzaile eta itzultzaileak. Zer

nolakoa den prosa hori? Hiru ezaugarriekin lotzen du: batetik, euskara pobretua da, baliabide gutxikoa eta horregatik errepikatzen ditu gehienetan egitura berberak; bestetik, beti erregistro berean aritzen da, ez du bereizten unibertsitateko azterketa baterako den ala herri bateko jaiak iragartzeko; eta azkenik, prosa modu hori ez da bere baitakoa, hau da, sortzen duen gehiena erdararen imitazioa da.

Prosa eredu horren zabaltzeak automatismo batzuk ere ekarri dituela dio Arraratsek: atzerakarga, gerundio

faltsuak, puntuazio pobrea –komak eta puntuak bakarrik erabiltzea–, perpaus erlatiboan erabilera neurrigabea... “Batzuentzat hori da euskara batua, hori baino ez. Erregistro formaletan, prosa modu hori hankamotza da, zehazta-sunik gabea; lagunarteko erregistroan ordea, pozoiz hutsa da, artifiziala eta graziaz gabekoa delako. Nolanahi ere, beste askok ez dute porru hori irensten, eta, bistan denez, bestelako prosa modu batzuk ere sortzen dira, komunikatiboagoak eta erakarga-rragoak”.

Komunikazio helburua zer?

Orokortu den prosa mota hori gatzgabea eta kamutsa dela uste du euskaraz eta komunikazioaz han eta hemen gogoetatu duen Joxerra Garziak ere. Testuaren eraginkortasuna beharrean zuzentasuna lehenesteari egotzen dio, azken finean testu baten funtzioa komunikatu nahi duen horretan asmatzea baita. “Helburuak testu barrukoak ezarri ohi dira: kohesioa, koherentzia eta, jakina, zuzentasun gramatikal eta sintaktikoa. Hori guztia ondo dago, baina ez helburu moduan, bitarteko moduan baizik. Helburuak, benetakoa, testutik eta hizkuntzatik kanpokoa behar du izan: gure idatziaren bidez zer eragin nahi dugun irakurlearengan”. Hizkuntza edo prosa eraginkorra den edo ez jakiteko, ordea, zer lortu nahi den jakin behar da aurrez. Senekaren aipu bat dakar gogora Garziak: “Haize onik ez baitago nora joan ez dakienarentzat”.

Uste berekoa da Arrarats, baina arriskutsua iruditzen zaio zuzentasun eza komunikazio gaitasunarekin lotzea, ez baitira elkarren etsai. “Lizentziak hartzeko ere, araua behar da; araua hausteko ere, araua behar duzu. Araua, berez, ez da Euskaltzaindiaren bilduma horretan agertzen dena *bakarrik*. Araua da hizkuntzaren logikaren barrenean dagoena. *Damolatz* edo *dizerdit* asmatzea ederra da, euskararen bizi-indarraren seinale, baina ez bazaigu ateratzen, pentsatu ere egin gabe, *badamolatz* esatea, *banoa* esaten den bezala, bada, problema da arrotza zaigula euskararen sistema, eta, beraz, sistemarik gabe, hots, hizkuntzarik gabe geratzeko arriskua dugula”.

Erdaren menpeko dotorezia

Idazten duenarengan nagusitu diren inertzia horiek ustezko dotoretasuna-

» Euskara pobretu,
baliabide gutxiko eta
errepikakorra nagusitu da
eta zenbaitek eredu hori
ulertzen dute euskara
batutzat

rekin lotzen dira maiz. Arraratsek dioen moduan, “Trenak oraintxe burutuko du bere irteera” esaten badugu, batzuek nahiago dute hori “trena oraintxe aterako da” esatea baino. Garziak aldiz, dotore ari garelakoan eta kohesioaren izenean, etengabe erabiltzen ditugun “izan ere”, “alabaina”, “lehenik eta behin” eta gisako lokailuak aipatzen ditu adibide gisa. Gaztelaniatik edo frantsesetik abiatzearekin lotzen du fenomeno hori Arraratsek, oso zaila delakoan, begi-bellarrietan erdararen oihartzun etengabea izanda, egituraz-eta guztiz bestelakoa den hizkuntza baten dotoretasuna estimatzea. “Transmisioan eten bat gertatu da, eta, horren ondorioz, aurreiritzi batzuek indar handiagoa hartu dute gure tradizioak baino, eta, zoritxarrez, ez dakarte batere abantailarik komunikazioa hobetzeko. Horixe da gure bide itsuen sorburua, nik uste”.

Ezin dena hezkuntzari aurpegiratu

Inertziatzko idazketa hori nolakoa den eta zergatik gertatzen den nolabait argituta, bada erantzuleen bila hasteko garaia. Arraratsi gehiegitxo iruditzen zaio eredu hori eskoletan sustatu dela esatea, baina aitortzen du egoera soziolinguistikoaren ondorioz euskara mehetuz joan den neurrian, arlo guztietan sartu dela, baita eskoletan ere. “Komunikabideak, filmak, bideo-jokoak... Gehien-gehiena erdaraz jasotzen dute haurrek. Euskal mundua arlo gutxitara iristen da, eta eskolak ezin beteko ditu beste arloetako hutsune guztiak”. Gogora dakar, hala ere, alde handia dagoela eskoletan euskaraz eta erdaraz irakurtzen den artean: erdaraz literatura landua,

» Joxerra Garzia:
“Ikasleen prosa
gainbeheran?
Gehiago kezkatzen
nau irakasleen prosak:
negargarria da gure testu
akademikoen maila”

eta euskaraz, oinarritzko prosan idatzitako nerabeentzako liburuxkak. “Gurpil zoro bat da: euskara pobretu hori baino ez dakigunez, beldur gara gehiago eskatuz gero ez ote ditugun uxatuko haur-gazteak, baina besterik irakatsi-entzun-leitu ezean, nondik aterako dute?”.

Berriki erretreta hartu badu ere, orain gutxi arte EHUn Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean jaso ditu Joxerra Garziak aurrez eskoletatik iga-rotako ikasleak. “Ikasleen prosa gainbeheran ote doan? Baliteke, baina askoz gehiago kezkatzen nau irakasleen prosak, are gehiago komunikazioa irakasten dutenenak. Negargarria da, oro har, gure testu akademikoen prosa maila”. Hezkuntzatik kanpoko eragileetara zabaltzen den gaitza dela dio, euskarazko hedabideak ere jo puntuan jarrita: “Akats gramatikalik gabeko testuei aise ematen zaie oniritzia. Sarri, ordea, akatsik gabeko testu horiek ez dute ezer lortu edo eragiteko balio, inertziatzko idazkera lo-arazle baino ez dira. Horri ez zaio, baina, garrantzirik ematen, eta zuzenak badira, argitaratu egiten dira”.

Berria egunkariko zuzentzailea da Arrarats eta eguneroko lana du kazetaritza eta iritzi testuak berrikustea. Antzematen du arriskutsua iruditzen zaion hizkuntza etengabe berrasmatzeko joera: “Komunikazioa hobetzeko behar den guztia alda dadila euskara, baina ahal den gutxiena, hingatzearen poderioz exornatibo bihurtu ez dadin”. Tradizioko forma edo egituraren ordeztasun beste bat zabaltzen hasten bada, baina abantaila komunikatiborik ez badakar, zertarako behar dugu? Euskara asmatua dago”. ■


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Trauma, mamu, ilunpeetan barrena



Saioa Ruiz



Ilunpeen bihotzean JOSEPH CONRAD

Itzultzailea: Iñaki Ibañez
Elkar, 2014

Ilunpeen bihotzean (*Heart of Darkness*), institutuan, ez dakit zein ikasgairako derri-gorrezko irakurketa zen. Hamasei urteko gazteentzako gehiegizkoa ene usterako. Oraindik gogoratzen dut nola irakasleak esaten zigun Joseph Conrad literaturako klasiko bat zela, horrek liburu erakargarriago egingo balu bezala. Garai hartan nik ez nekien zeri deitzen zitzaion klasiko bat, baina berehala konturatu nintzen hitzak pisu berezia ematen ziola liburuari. Bi, hiru irakurketen ostean ezer ere ulertu gabe jarraitzen nuen eta horrek izugarrizko presioa eragin zidan. Klasiko bat ez ulertzearen kulpabilizazioa gogoratzen dut, beranduago idazlearekiko gorrotoa bilakatu zena.

Pasadizo traumatiko horri esker gazteei literatura planteatzeko moduaz asko ikasi nuen, baina idazlearekiko errefusa ez dut oraindik gainditu. Hemen naiz aspaldiko partez traumari aurre egin nahian.

Logikoki kontaktua bestelakoa izan da oraingoan. Esperientzia bitalak eragin ukaezina du asimilazioan, ulermenean eta, batez ere, gustu kontuetan. Beste hitzetan esateko, klasikoaren irakurketek ez dute zertan derri-gorrezkoak izan behar, eta askoz gutxiago ere nahi eta nahi ez gustagarriak. Horregatik, kontuz ibili behar dugu kontzeptu teorioegien erabilerarekin, bereziki gazteen aurrean. Niri dagokidanez, bai, esan dezaket trauma gainditu dudala, iritzi teorikoei beldurra galtzeari esker.

Gauzak horrela, esan gabe doa *Ilunpeen bihotzean* irakurri dudanez Conrad-en liburu

bakarra dela. Denok daukagu argumentuaren nola edo halako ideia bat, eleberrian oinarri sendoa duen Coppolaren *Apocalypse Now* filmari esker. XIX. mende amaieran kokatzen gaitu, Marlowk dioten bezala, "lurra-ren konkista" garaia. Marlowk gidatutako belaontzi europarra Afrikan barneratzen da gaixorik dagoen Kurtz izeneko boli-komertziala ordezkatzeko. Kolonizazio okzidentaltaren gehiegikeria eszenatoki hartuta, oro har, ilunpeetan jatorria duen gizakia eta zibilizazioaren arteko talkaz mintzo da. Oihanean barneratzea norbere mamuetan zehar bidaiatzea bezala da, *descensus ad inferos* deitu izan zaion motibo klasikoa, alderdi ilunenak ezagutzea alegia. Liburuaren konplikazioa psikologikoa izatean datza hain zuzen ere; kontzientziaren leku ezkutuenetan (inkontzientea deitua ere) miazteak eragiten duen ezinegona, estualdia eta, zenbaitetan, ingurukoarekiko haustura. Horregatik pentsatzen dut publiko adindun batentzako irakurketa aproposa dela, baina ez derrigorrezkoa. Norberak erabakitzen baitu bere ilunpeen bihotzean arakatzea. ■



» **TELEGRAMA**

Buenawistako soinuen zale? Kartel klasiko bezain eraginkorra ostiralean, hilak 15, Donostiako Dokan: **NCC** eta **Señor No** taldeak batera ariko dira 20:00etatik aurrera **STOP Petti** beratarra, **Piztiak** ondarroarrak. Kafe Antzokia, durangarra. Zerk huts egin dezake? Plateruenan gozatzeko moduko kontzertua abenduaren 16an **STOP Ttan Ttakun** irratia **ren festa** ospatuko dute urtero bezala Gazteszenan: **Lagartija Nick**, **The Limboos**, **UK Bill** eta **Superdozer** taldeak ariko dira **STOP**

» **MUSIKA**

Deabruekin dantzan



VII KUDAI

Autoekoizpena, 2015



Joxi Ubeda

Kudai taldeak bere ibilbidean urrats bat aurrera egin du *VII* lan berriaren bidez. Taldeak metal industrialari bere ukitua ipini dio, bere nortasuna. Taldekideek indar handiz jotzen dute, giro ilunak eraikitzen dituzte, melodiak eta leloak arretaz lantzen dituzte, eta doinu zuzenak grabatu dituzte, zehatzak, gordinak eta bortitzak. Mammon, Leviathan eta Beelzebub deabruekin dantza egiteko doinuak.



VII diskoko kantu bakoitzean deabru, istorio eta tentaldi bat aurkituko dugu, infernura erortzeko gonbidapen bana. XVI. mendean, Peter Binsfeld teologo alemanak zazpi bekatu nagusiak –harrokeria, lukurreria, alferkeria, lizunkeria, bekaizkeria, jalekeria eta hase-rrekeria– zazpi deabruarekin lotu zituen. Zerrenda horretan oinarritzen da Kudai talde gipuzkoarraren bosgarren diskoa.

Kudai metal taldea 2002an sortu zen, Ekaitz eta Bortx –Hira taldean aritzen ziren– elkarrekin jotzen hasi eta lehenengo ideiak sortu zituztenean. Handik gutxira David –Bletz taldeko kide ohia– haiekin jotzen hasi zen, eta beranduago Tito, eta lauren artean osatu zuen Kudai taldea. Lehenengo abestiak sortzearekin batera, jendaurreko emanaldiak egiten hasi ziren. 2004an *Hutsa* lehen diskoa plazaratu zuten Oihuka zigituarrekin, eta lan horrek harrera ona izan zuen hedabideetan. *Ni Naiz* kantuarrekin osatu zuten bideoklipa Euskadi Gaztea irratia **ren sarietarako** izendatu zuten.

Arima Eroslea bigarren diskoa beren kabuz ekoitzi zuten 2006an. 2008an Ekaitzek taldea utzi zuen eta Urtzi –Hira taldeko kide ohia– hasi zen Kudai taldean jotzen. 2009an *Shat Mat* hirugarren diskoa kaleratu zuten, Titok arazo fisikoengatik taldea utzi eta Urko hasi zen bateria jotzen.

2013an *Harezko Dorreak* diskoa argitaratu zuten. Ondoren, Urkok taldea utzi zuen, eta Unai hasi zen bere ordez jotzen. Beraz, Kudai taldeko kideak Bortx (gitarra eta programazioak), David (ahotsa), Urtzi (baxua) eta Unai (bateria) dira. Laukotea finkatuta dago, eta *VII* diskoa plazaratu ondoren, lan hori han eta hemen jendaurreko emanaldietan aurkezteko gogoz daude. Beren saioak ikusteko eta entzuteko modukoak izango dira. ■

PLAZA IRABAZTEKO JARRERA

AMORANTEREN KONTZERTUA

GASTEIZKO PARRAL TABERNA,
ABENDUAK 22

Disko aurkezpena: otsailaren 19an, 19:30ean,
Donostiako Garoa liburu-dendan.

Bertan eskaini zuen emanaldia ikusgai duzu
"Amorante-Paperezko kontzertua" izenean,
Youtuben.



Jon Aranburu Artano
@jonaranburu

Izaten da, tartean-tartean, kontzerturen bat entzuleari euforia puntu bat uzten diona amaitutakoan; gustura egon dela adierazi behar larri bat. Halakoxea izan zen abenduaren 22an Parral tabernan Amorantek eman zuena.

Tronpeta esku batean, zintzarria bestean sartu zen tabernara, entzuleria geunden lekua gurutzatu eta eskaile-retan gora, taula gainera igotzeko. Hasieratik harritu nahi gintuen entzuleok, hasieratik erakarri, bildu. Segidan, Amoranteren kontzertuetan ohikoa den moduan, bertsolari batek (Manex Agirrek, Gasteizerako) propio idatzitako bertso bat kantatu zuen, doinu berriz. Hasteko; zetorrenaren aperitif modura.

Bakarka, soinu tresna mordoxxa eta efektu pedalak lagun, kantu sorta ederra plazaratu zuen, Amorante izenpean, Iban Urizarrek. Proiektu berria aurkeztu zigun, aurrekoak baino pertsonalagoa, besteak beste, Cafe Teatro, Andrankan, Joseba Irazoki eta Lagunak taldeetan aritua denak. Herri musika egiten due-



DOSPORDOS

la dio, eta herri musikak dituela oinarri. Eta nork ez du herri musika egiten? Punka edo Hip Hopa egiten duenak ere hala egiten du, ezta? Amoranteren proposamena ez ohiko egiten duena, ordea, herri musika anglosaxoiari baino, beste jatorri batzuetakoei heltzea da. Modu melismatikoan kantatzen du asko, silaba bat nota bakar batez baino gehiagoz luzatuta, flamenko cantaoreek, besteak beste, egiten duten moduan. Berak argi uzten du, ordea, ez duela flamenkorik egiten, beste hainbat iturritatik ere edaten duela: dantza giroan jarri gintuen Iparragirreraren *Zugana Manuela Rai* kutsuko kantu bihurri bihurtuta, esaterako.

Ez da gauza bera liburu-denda batean kantatzea, areto txiki batean, edo taberna batean; ez da gauza bera astearte batez edo ostiral batez aritzea. Eta ondo daki hori Ibanek, horren jakitun, Parra-lera, astearte buruzuri batera egokitu baitzituen kantuok, izan, aipatu bezala, emanaldirako propio enkargatuta-

ko hitzekin, izan kantuak momentuan moldatuta, izan kantu arteko azalpenen bitartez. Nola esan: herri musikarien estiloan, plaza askotan aritu denaren patxadaz, plaza irabazi egin behar denaren konbentzimenduekin; kontserbatorioetako jarreretatik urrun.

Aitortuko dizuet, ez naizela akordatzeko kontzertuak zenbat iraun zuen: ordubete? Ordu erdi? Amaitzeko ordua iritsi aurretik, jendeak ozen eskatuta, pare bat bis jo behar izan zituela akordatzeko naiz. Seinale ona.

Belauniko, Indiako Harmoniuma lagun, *Otoi* kantuarekin agurtu gintuen Parraleko eskailera goialdetik, entzuleon gozamenerako. Zutitu eta saltzeko diskorik ez zuela esan zuenean, kexu zen jendea! Datozen hilabeteotan kaleratuko duen lanaren promesarekin leundu gintuen. Bitartean, Garoa liburu-dendan grabatutako paperezko kontzertuarekin konformatu behar; edota beste emanaldi batean Amorantek zer dakarren ikustera joanda. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

BIRIKETAKO TUBER- KULOSI ZATIA, ATALA	↓	LANERAKO IDI (BI HITZ) EUSKAL- TZAINDIKO KIDE	↓	ETXE MULTZO		LERDE ADAR TXIKI, ADARTXOA	↓	JANARIEZ MINTZATUZ, SAMUR ARGUDIO	↓	PERTSO- NAIAREN ABIZENA BELDURTIAK, IKARATIAK	↓
↓		↓		↓		↓		↓		↓	
SUMINDU MODUZ	→					URETAN BIZI DENA EUROPAKO MONETA	→				
↓					MUSIKA TALDEA HARRITUTA	↓	HARAGI ERRE ZORIGAITZA, EZBEHARRA	↓			
UR KORRONTE NATURAL	KROMOZTATU PERTSO- NAIAREN ABIZENA	→			↓		↓	NAFARROAKO HERRIA ARBULATZEN DEN GAUZA	→		
↓	↓			BELDURREZ ARAU MULTZO	→			↓		MODU ATZIZKIA GESAL	→
PUXTARRI BARIKUA	→			↓	URETAN EGOSITAKO IRINA MIKEL ..., KANTARIA	→			↓		
↓					↓		JIRA 561 ERROMA- TAR ZENBAKIZ	→			BELDUR BIZIA
EUSKAL FONEMA AZTERTU	→		ARGITU DUT (ALDE- RANTZIZ)	→			↓		EGUZKI ZAKURRA	→	↓
↓			↓		BALIOTSU RADONAREN SINBOLOA	→			↓		AZKENA TORIOAREN SINBOLOA
ANGELU HANDIGURA	→				↓		LILURATU HIDROGENOA	→			↓
↓							↓		AZIENDEN JANARIA	→	

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

		2	7					
	3			8	5		6	
1				2		8		
5	4			6				7
	7	6				3	8	
3				9			5	4
		3		1				6
	6		8	7			1	
					2	5		

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Ona, ontasunez betea.
2. Erromatar enperadorea.
3. Aldaketa, trukaketa.
4. Lokarri sendoak.
5. Momentuko.

Soluzioak

8	8	7	6	4	2	5	3	8
2	2	1	6	3	8	5	5	9
9	4	6	1	9	7	4	6	8
3	1	8	2	6	7	5	5	4
2	7	6	1	5	4	3	8	9
5	4	9	3	6	8	1	2	7
1	5	4	9	2	6	8	7	3
9	3	7	4	8	5	2	6	1
6	8	2	7	3	1	4	9	5
V	H	L	V	I	H	N	I	D
U	A	T	U	O	X	O	R	E
Z	S	O	I	L	V	B	U	T
I	K	E	U	D	V	Z	V	Z
A	R	A	B	I	R	A	L	A
L	I	K	O	R	M	O	R	A
O	T	Z	A	R	A	K	I	I
S	A	V	A	T	U	M	O	K
I	R	E	K	I	M	Z	V	S
A	R	U	T	A	U	Z	U	S
V	K	X	V	A	V	Z	E	I
M	U	V				U	L	

Lohitzune Zuloaga. Delinkuentziaren pertzepzio itxuragabeaz



Ez da legelaria, ez da kriminologoa, baina delitua aztertzen du soziologiaren ikuspuntutik. Egun Nafarroako Unibertsitate Publikoan egiten du lan, akademian aritzeak sortzen dituen estutasun ekonomikoak lagun. Iruñeko Katakrakek antolatu *Zelatatu eta zigortu* jardunaldietan ezagutu genuen Zuloagaren azken lana: *El espejismo de la seguridad ciudadana. Claves de su presencia en la agenda política* (Hiriko segurtasunaren ilusioa. Agenda politikoan duen presentziaren gakoak).

“Delitua eraikuntza soziala da, unean uneko akordioen ondorioa”



Arantza Santesteban

@a_santesteban

ARGAZKIAK: JOSU SANTESTEBAN

Ezkerreko alderdiek alternatibarik ez

“Oro har, kontserbadoreak ez diren indar politikoek ez dute kartzelari alternatiba emango dion eredurik proposatzen delituaren aurrean. Azkeneko hauteskundeetan programa politikoak aztertu nituen eta inork ez zuen alternatibarik proposatu. Ez dut eredurik aurkitu ezkerreko alderdi politikoetan, eta existitu existitzen dira irtenbide ez-zigortzaileak”.

Segurtasunari buruz ditugun pertzepzioak okerrak direla diozu.

Hori esan ahal izateko urteak eman ditut gaiaren inguruan ikerketa egiten. Guztia bildu dut liburu honetan, azken batean nire doktore tesiaren bertsio murtxikatua da, hizkuntza ulergarriagorria. Herritarren segurtasunaren ilusioaz hitz egiten dut, hori delako nire kezka nagusia: zein da jendearen beldur sententzioaren eta kriminalitate tasen artean dagoen harremana? Nire hipotesia hasieratik honakoa izan da, segurtasun gabezia sentipen horrek ez duela zerikusirik delitu kopuruarekin; eraikitakoa dela.

Esan nahi duzu norbaitek erabakitzen duela beldur sententzioa eduki behar dugula?

Esan nahi dut segurtasun ezaren eraikuntzan hainbat eragilek parte hartzen dutela. Beldurra sentitzen dugu gure ingurune sozial hurbilekoak balizko arriskuez ohartarazten gaituenean: “Itxi ongi

leihoak, lapurreta asko daude azkenaldian” edo “ez ibili gauez bakarrik, bor txaketak egon litezke eta”. Horrek beldur sententzioa eragiten du. Horrez gain hedabideak daude, sarritan, delituen kronikak gertakariaren sailetan etengabe bilduz, arazoa handiesten dutenak. Azkenik, nire senak ohartarazi bezala, alderdi politikoaren eragina dago: haien eragina uste baino handiagoa dela ohartu nintzen hasieratik, komunikabideena baino askoz handiagoa.

Nola ohartu zinen horretaz?

2003. urtean Espainiako Zigor Kodearen erreforma onartu zen. Berezik gogorra izan zen zigorraren aplikazioari zegoenez. Horren aurkako erreakzioak batez ere Zuzenbidetik etorri ziren. Alabaina, ez zen egon analisi soziologikorik, ez eta erreforma horiek eman ziren testuinguru soziopolitikoaz aztertzen zuenik ere. Zein izan zen gogortze horren arrazoia. Zer garrantzi izan zuten horretan komunikabideek, alderdi politikoek eta kriminalitate tasek.



“Segurtasun gabezia sentipenak ez du zerikusirik delitu kopuruarekin; eraikitakoa da”.

Zure tesia baieztatzeko aukera izan zenuen orduan.

Hala da. Kriminalitate tasak aztertu nituen eta une horretan Espainiako Estatuak Europar Batasuneko tasarik txikienetarikoa zuen. Zigor Kodearen gogortzea ezin zitekeen izan delitu kopuruaren igoeraren ondoriozkoa. Komunikabideak aztertu nituen, eta zehazki, gaiari buruz argitaratutako 11.500 izenburu. Orduan konturatu nintzen ñabartu beharra zegoela komunikabideen eragina, izan ere batzuetan izenburuen ondoriozko legediak egiten dira, baina kasu honetan legediaren araberako izenburuak eraiki ziren.

Zergatik eragin dezake alderdi politiko batek segurtasun eza herritarrengan?

Esan bezala, azterketa honetan konturatu nintzen alderdi politikoek aurea hartua zutela. Ustekabe handia izan zen niretzat. 2000n PSOEren barruan Zapaterok hartu zuen lidergoa, alderdia oso ahul zegoenean. Testuinguru horretan, beste herrialde batzuetan funtzionatu zuen estrategia berbera abiatu zuen.

Erresuma Batuan Tony Blairrek Alderdi Laboristaren lehentasunezko gaien artean herritarren segurtasunaren ausia jarri zuen; erakutsi nahi zuen ezkerrek hobeto kudeatu zezakeela arazoa eskuinak baino. Zapaterok antzeko zerbait egin zuen, eta orduan hasi zen segurtasuna erdigunean jartzen. 2003an PPK bere egin zuen gaia; PSOEek eskuinaren esku utzi zuen kontrola. Aznarrek esandako hitz hauetan laburbildu daiteke kontua: “Delinkuentzia ezabatuko dugu kaleetatik”.

Garai hartan PPK fronte ugari zituen zabalik.

Bai, oso egoera zailean zegoen. *Prestige* ausia bor-bor zegoen, baita Irakeko gerraren kontrako masa kritikoaren loraldia ere. PPK delinkuentziaren aurkako borrokaren bandera atera zuen, eta arlo horretan lidergoa bere gain hartuz Zigor Kodea zurrundu zuen delinkuentzia, terrorismo eta sexu indarkeria kasuetan. Ordutik Espainiako Estatuak Europako legedi gogorrenetakoa dauka; delitu tasa txikia eta kode zurruna. Delitu

berdinengatik kartzelan askoz denbora luzeagoa igarotzen da hemen. Delituak oso garesti ordaintzen dira.

Zein da gaur egungo panorama enegarraren aldiz Zigor Kodea gogortu ondoren?

Espainiako Estatuan berriki onartu den Zigor Kodearen azken erreforma Alberto Ruiz-Gallardón Justizia ministro ohiaren dimisioaren ondoren etorri zen. Rafael Catalák hartu zuen erreleboa abortuaren legearekin izandako hanka sartzearen ondoren, eta apurka mota guztietako gogortze politikak eta zigor berriak saldu zizkigun. Hain errentagarria zaien terrorismoaren gaiarekin eman zioten azken bultzada. Oroitu dezagun erreforma hau Gallardónek berak proposatu zuela eta ez zuela harrera onik izan esparru juridikoan. Baina aukera aukera da. Egin kontu, Parisko gertakarien ondoren gehiago gogortuko dituzte legediak. Baina funtsean, zein da mehatxu errearen eta segurtasun ezaren sentsazioaren artean dagoen harremana? Delitua eraikuntza soziala da, unean uneko akordioaren ondorioa. ■



Twitter kolapsatu dute Euskal Herriko masista-leninistek CUPen aurkako txioak borratzen hastean



Junts pel Sík eta CUPek Artur Mas gabe prozesu independentistarekin aurrera jarraitzea erabaki ostean, hautagaitza antikapitalistaren kontrako txioak masiboki ezabatzeari ekin diote beren burua masista-leninista gisa definitzen duten euskaldunek. “Inoiz ezagutu dugun txio ezabaketa handiena izaten ari da”, azaldu du sare sozialaren nagusi Jack Dorseyk Facebook bidez -Twitterretik ezin izan


baitu, ageriko arrazoiengatik-. “CUPena patetikoa iruditu zait”, “Artur Mas politikari superdotatua da” edo “Ultrakoherentziaren zaindarien frustrazioa eragin dute” bezalako txioak dira joan den aste-burutik ezabatu diren mezuak. “Gurean ezabaketa egunek tradizio handia dute, zergatik ez ditugu egingo ezabaketa-egun digitalak?”, azaldu du masista-leninista euskaldun batek gaiaz galdetuta.

SAREAN ARRANTZATUA

Habemus president... berria?



ESKLUSIBA: Euskararen txantxangorriaren konfesioa: “Ezin dut hegan egin”



Eusko Jaurilaritzak duela gutxi aurkeztu du jendaurrean Euskararen Txantxangorria, hizkuntza sinbolizatze bokaioa duen txoria. Presentzia mediatikoaren ondorioz hegaztiak galdera askori erantzun behar izan die eta presioek eraginda BERANDUEGIri aitortza eskusiboak egin dizkio: “Telebistako anuntzioan txori asko ageri dira hegan, baina ni ez naiz horietako bat.

Txikitatik Arantzako ahatea banintz bezala elikatu ninduten eta horrek atrofia muskular sendaezinak eragin dizkit. Ezin dut hegan egin eta beldur naiz kanpaina hau amaitzen denean ez ote nauten foie gras egiteko erabiliko”. Adierazpenak ezagutu eta beherala, Begano Euskaldunen Biltzarrak erabaki du ez duela gehiago Euskararen Txantxangorria erabiliko.

ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA

| PAREKIDETASUNA

INGURUMENA

EUSKALTZALETASUNA

ELIKADURA BURUJABETZA

INDEPENDENTZIA

DEMOKRAZIA ZUZENA

DESOBEDIENTZIA ZIBILA

GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA

HERRIEN MUNDUA

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

SEXU ASKAPENA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



Parekidetasuna balio ardatzetako bat da ARGIA-n. Feminismoa eta genero ikuspegia gure egunerokotasunean txertatzen ari gara, teoriarik bezain praktikan. Merezki duen bizitzari nahi dugu euskal herritarrentzat eta helburu hori erdigunean jartzen duen komunikazio proiektua gara.

URTARRILEKO ZOZKETAK



Tribial Feminista: ezagutu emakumeen historia
(5 mahai-jolas)

Euskadiko Jabetze Eskolak



Bizentaren lumak: sustatu jarrera parekideak
(5 solas-jolas)

Elhuyar
bizentarenlumak.elhuyar.eus



Bilgune Feministaren materialarekin: Kamiseta, CD eta DVD edo liburua (3 saski)

Bilgune Feminista
www.bilgunefeminista.eus



Genealogia Feministak liburua eta Emaraun-en harpidetza

Bilgune Feminista
www.bilgunefeminista.eus

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545
gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com